


2007ko ekainaren 14a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



Hauteskundeen balo- razioa herriz herri

03

Udal hautetsi berriak kargua har-
tzeko atarian daudela, maiatza-
ren 27ko udal eta parlamentura-
ko hauteskundeetako emaitzak
aztertu ditugutuari begira ere.



'El pais del Bidasoa' zesta punta txapelketa

40

Dagoeneko abian den txapelke-
tan, batetik, enpresa profesiona-
letako pilotariak ari dira, eta ber-
tzetik, seniorrak binaka. Finala
Donezteben jokatu da, 30ean.

ARKUPEAK ERRETIRATUEN ELKARTEA

36

Urrezko eta Diamantezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenei omenaldia





ORDOKI

altzariak



ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA

larunbata goiz eta arratsaldez irekia

ZEINENTZAT?

3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoentzat

NON?


Arantzan, Beran, Etxalarren, Igantzin eta Lesakan

IZEN EMATEA

Ekainaren 11tik 22ra

INFORMAZIOA

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea 948 634 125



UDALEKU IREKIAK 2007
BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA





ARTXIBOA

Aitzineko hauteskundeetan zerrenda batzuk legez kanpo uzteak protestak eragin zituen zenbait herritako kargu hartzean. Berako kasua —argazkian— izan zen horren adibide.

HERRIZ HERRIKO EMAITZEN AZTERKETA

Beran eta Lesakan izan ezik, jakina da zein izanen diren alkate berriak

Udal hauteskunde bereziak izan dira aurtengoak ere.

Aitzinekoetan herri aunitzetako zerrendak debekatu ziren, baita oraingoan ere. Beran, Lesakan, Goizuetan, Leitzan eta Baztanen Abertzale Sozialisten Batasunarenak (ASB), eta Lesakan, Sunbillan, Areson eta Baztanen EAE-ANVrenak baliogabetu izanak, boto nuloen kopurua altua egin du. Herri-herriko azterketa egite aldera, errealitate desberdinak ikusten dira: zerrenda bakarra batzuetan; bi bertzeetan, eta lau Beran eta Leitzan.

Gurutze PIKABEA

Herri-herriko azterketa egin baino lehen, aipatzekoa da **Arano, Domanaria, Oitz eta Zubietan** inor aurkeztu ez zelako, hemendik 6 hilabetez eginen dela berriro hauteskunde deialdia. Gainerakoetan, larunbat honetan hartuko dute kargua hautetsiek.

Arantza. Aurten bi zerrendaren artean hautatzeko aukera zuten: Arantza Aitzinera eta EAJ-PNV. Partehartzea altua izan ohi da Arantzan eta orain ere hala izan da. 2003an %81,25-ekoa, eta aurten %84,20koa. 2003an Bagara plataforma legez kanpo utzi zuten, eta zinegotzi guztiak —zazpi— EAJ-PNVrentzat izan ziren, 231 boto jasoz. Boto baliogabeen kopurua ere altua izan zen: 232. Azken hauteskundeetan 2 talde izan dira berriro, eta Arantza Aitzinera izan da bozkatuena 276 botorekin. PNVk 204 jaso ditu, aitzinekoan baino 27 guttiago.

Areso. Parte-hartzea %86,43koa. EAE-ANV legez kanpo utzita, CDN eta Areso Eraikiz zeuden lehian. Mikel Baraibarrek zuzentzen duen taldeak emaitza hobeak eskuratu ditu oraingoan ere: 2003an zazpitik 4 zinegotzi lortu zituen, botoen %39,6. Aurten, Areso Eraikiz taldearekin, botoen %70,40a lortu du eta 5 zinegotzi.

Baztan. Legealdi honetarako aurkeztu ziren lau zerrendetatik bi baliogabetu ziren, eta Baztanen historikoki indar handiena izan duten taldeak lehiatu dira. Batetik, Virginia Aleman buru duen Nafarroa Bai, eta bertetik, Begoña Sanzberrok zuzentzen duen UPN. Lehia estua izan da, UPNk %10ean egin baitu goiti, eta 5 zinegotzi izatetik 6 lortzera pasatu baita (1.615 bototik 1.785era). NaBaik, berriro, 7 izanen ditu, EAK zuena baino bat guttiago (EAK 2.554 jaso zituen 2003an, NaBaik 2007an 1.931). Bo-



to baliogabeen kopurua, 2003an baino haundiagoa izan da, 2003an botoen %9,77 nuloizatetik, %16,78 izatera pasatu baita 2007an. Abstentzioak ere goiti egin du: 2003an %74,73k eman zuten botoa, —normalean partehartzea hor ibiltzen da— Azken hauetan, ordea, %62,5koa izan da.

Beintza-Labaienen kasuan, partehartze eskasa da azpimarratzekoena, %38,06. Baliteke talde bakarra izateak motibazioa jautsi izana. Erroldan daudden 268tik 102k baino ez dute eman botoa.

Beran, EAE-ANV aukeran egoteak panorama aldatu du. Bozkatuena ANV izan da (botoen %30,40), eta orain arte, Udalean egon diren Aralar eta EAk boto kopurua galdu dute, baita zinegotzi bana ere. EAk 3 eskuratu ditu, eta Aralarrek 2. Estreinakoz aurkeztu den EAJ-PNVk, 2 zinegotzi ditu. Alkatetza lortzeko aukerak zabalik daude Beran.

Bertizaranan, zerrenda bakarra izatetik hiru aurkez-

tera, aldaketa nabaritu da. Zazpi hautetsiak Bertizaranako Elkartaldea (4), Bertizarana Bai (2), EAE-ANV-ren artean (1) banatu dira. Hiru zerrenda egoteak partehartzea % 60,85etik %70era igo du.

Partehartzea altua izan da Elgorriagan (%90,34), Areson (86,04), Arantzán (84,20) eta Urdazubín (83,14). Aldiz, eskasa, Beintza-Labaien (%38,08) eta Eratsunen (%43,25).

Doneztebe. Oraingoan EAJ ez da aurkeztu. Bakarrrik EAK aurkeztu zueenez zerrenda, beretzat da agintea. Miguel San Miguelen itzulerak boto aunitz bildu ditu, 2003an EAK jaso zituenak baino dezetzez gehiago (botoen %48,91 2003an, eta %71,57 aurten). Beraz, 9 eserlekuak Earentzat.

Gauza bera gertatu da **Ituren**en ere. Miguel Angel Petirena buru, EA bakkarrrik aurkeztu zen eta bereak dira zazpi ordezkariak. Halere, hemen, herritarrek EAri emandako babes eta partehartzearen behera-

kada aipatzekoak dira. Partehartzea %64,47koa izan da, 2003an izan zena baino 8 puntu guttiagokoa.

Elgorriagan, bi dira azpimarratu beharreko ezauzgarriak. Batetik, Nafarroan izan den partehartzerik al-

tuena izan dela (%90,34), eta bertzetik, bi zerrenda aurkeztu izana: Bostorraz eta Nafarroa Bai. Zerrenda irekia da Elgorriagakoa, eta talde bakoitzean 5 hautagai. Herritarrek hautagai bakoitzari emandako botoaren arabera, Bostorrazeko hiru hautagai eta Nabaiko bi izan dira botatuenak. Horien artean, boto gehien jaso dituen (81) Bostorrazko Santos Iru-rueta izan da. Orain, hautatutako bortzek euren artean botaketa egingen dute alkatea izentatzeko.

Eratsun da eskualdean partehartze ttikienetakoa

izan duen bertze herria, %43,25koa. 2003an bi talde aurkeztu baziren ere, aurten bakarra izan da, Iruñarri, eta bortz hautagaien artean botatuena Pedro Antonio Deskarga izan da. Hemen ere, zerrenda irekiak direlako, euren arteko botaketa egin beharko dute. Bertzela, Pedro Antonio Deskargak segituko du alkatetzan.

Etxalar. Alkatetzako makilak Herri Taldearen eskutik segituko du. Halere, boto kopuruan beheiti egin du Herri Taldeak eta goiti EAK, eta 15 botoen tarte egon dago bien artean (240 Herri Taldeak eta 225 EAK).

Ezkurran partehartzea ez da hagitz altua izan: %48,7koa. Talde bakarra aurkeztu zen, Idoia, eta hautagaietan botatuena Julian Gogortza izan da.

Goizueta. Hauteskunde hauetan bi ezaugarri nabarmendu daitezke. Batetik, historikoki talde bakarra aurkeztu den herrian (orain 20 urte aurkeztu ziren bi talde) hiru talde aurkeztu direla aurten. Goi-

zuetako ASB legezkano utzi zuten, eta EAE-ANV eta Elkartasuna taldeen artean banatu dira botoak. Bestetik, lau botoko diferentziak alkatetza eman dio lehen ere alkate izandako Miel Joxe Lekuonari (EAE-ANV). Lehia estua, beraz, 292 EAE-ANV eta 288 boto Elkartasunak.

Igantzin, 1999an elkartuta aurkeztu ziren EAJ eta EAren artean banatu dira hauteskunde hauetako eserlekuak. Aipatzekoa da, 2003an bakarrik Herri Taldea aurkeztu zela, eta orduan berak eskuratu zituen boto kopurua (314 boto) baino guttiago eskuratu dutela aldi honetan EAk (120) eta EAJ-PNVk (184) biak batuta.

Leitza. Udal hauteskundeek nabarmen aldatu dute Udalaren osakera. Aipagarriena, EAE-ANVren garaipena batetik, eta Aralarren beherakada bestetik. 11 hautetsitik 6 lortu ditu ANV eta berea izan den alkatetza hurrengo lau urteetan. Bere aldeko boto kopuruak ere gorakada nabarmena izan du. 2003an Larraín Herri Plataformaren baliogabetzea tartean zela, botoen %30 nuloak aterazi ziren. 2007an, ordea, ANVk botoen %46,28a lortu du. Aitzitik, Aralarrek, hautetsi guztiak (4) galdu ditu. UPNk ere beheiti egin du, 3 ordezkari galdu baititu (5 izatetik 2 izatera pasatuz), eta EAk, aldiz, goiti, 2tik 3 hautetsi izatera pasatu da.

Lesakan, 5 zerrenda aurkeztu ziren, baina EAE-ANV eta Lesakako ASB legezkano uzteak hirutara mugatu du herritarren aukera. Bertze legealdi batez, EAJ-PNVk irabazi du, baina oraingoan ez du lortu aitzinekoetan EAren batera zuen gehiengoa. EAJ eta EA ez dira koalizio moduan aurkeztu, eta horrek airean utzi du alkatetza. EAJk 5 hautetsi eskuratu ditu, Oninek 4 eta EAk 2. Elkartzeko aukera posibleak dauden aldetik, erabaki gabe dago alkatetza. Boto baliogabeen kopurua, berriz, 2003an be-

zalatsu ibili da, botoen %18-19a.

Saldias. Zerrenda irekiak hemen ere, eta bozkatuena orain ere alkate den Pedro Urrutia izan da. Partehartzea %57,89koa izan da. Alkatea zein izan den jakiteko, hautagaiek botaketa eginen dute, eta gehiengorik atera ezean, Pedro Urrutiak segituko du alkate izatean.

Sunbilla. Orain arte bezala, EArena izan den alkatetza legealdi berrian ere. Oraingoan Jose Fco. Errandonea buru duela. Sunbillardarrak taldearen eta EAren artean banatu dira ontzat emandako botoak. EAren jarraitzaileek ez diote hutsik egin alderdiari aurren ere, boto berdintsuak eskuratu baitituzte: 2003an 301, eta 2007an 298. Sunbillardarrak taldeak 93 boto lortu ditu bere estreinaldian, eta zinegotzi bakarra. Gainerako seiak EArentzat izan dira. EAE-ANV baliogabetzeartean, 87 boto nulo izan ziren. Halere, 2003an baino nulo guttiago aurren.

Urdazubin, %83,14ko partehartzeak eta 14 botoko aldeak eman dio alkatetza Azkar taldeko Santiago Villaresi. Aitzineko hauteskundeetan Andres Diharsarriren Urtxume taldea bakarrik aurkeztu zen, baina oraingoan, hiru zinegotzirekin gelditu da. Santiagorenak, lau ordezkari izan ditu.

Urrotz eta Zugarramurdin zerrenda irekiak dira eta bietan talde bakarra aurkeztu zen, Herriko Alkartasuna Urrotzen, eta Akelarre Zugarramurdin. Urrotzen partehartzea %66,45ekoa izan da eta Jose Luis Larraiotz bozkatuena. Zugarramurdin, partehartzea %56,74koa izan da, eta botatuena, Evaristo Mentaberrri. Aipatzekoa da, Zugarramurdin, 2003an 2 talde aurkeztu zirela, eta bakarra honetan. Bai Urrotzen eta bai Zugarramurdin, alkatetza borts hautagaien esku dago, eta gehiengorik ateratzen ez bada, orduan, bozkatuena izan den alkate.

PARLAMENTUKO EMAITZAK

Herri guztiak batera hartuta, Nafarroa Bai nagusitu da botoen %47,79rekin. Halere, 2003an koalizioko alderdiek botoen %49,20a eskuratu zuten. UPNk eutsi egin dio (%22,11) eta PSN-PSOEek goiti egin du %4,04tik %6,74ra. CDNk beheiti %4,91 izatetik %2,84 izatera pasatuz. Azkenik, EAE-ANVren baliogabetzea tarteko, boto baliogabeak boto guztien %17,42 izan dira.

Baztanen, partehartzearen beherakada alderdi guztiek nabaritu dute. NaBai eta UPN dira bozkatuenak, hurrenez hurren. Aitzitik, NaBaik botoak galdu ditu: 2003an botoen %46,82 jaso zuen, eta 2007an %43,77. UPN antzera ibili da, %33 ingururekin. Boto baliogabeak dira, nolabait errateko, hirugarren indarra. 2003an botoen %9,41 izan ziren, eta aurren, %11,72ra igo dira. PSNren gorakada ere azpimarratzekoa da: bi puntu igo baita 2003tik 2007ra. Bertze aldean, CDN, %3,87 izatetik %2,10era jaitsi da.

Bertizaranan eta Malerrekan ere NaBai izan da bozkatuena, baina aitzineko hauteskundeetan baino babes tikiagoa eskuratu du: botoen %57,56 eskuratzetik %51,76 izatera pasatu da. UPNk zertxobait goiti egin du, botoen %20,42 eskuratu zituen 2003an, eta 2007an %21,50 lortu ditu. Halere, 2003an gehiengoa jaso zuen Beintza-Labaien eta Urrotzen –Ezkurran berdinketa EAJ-PNVrekin– baina orain NaBairentzat joan dira. Boto baliogabeak dotoz ondortik. Hauek ere beherantz egin dute, aitzinekoan %12,52 ziren nuloak, eta orain, %11,21. CDNren beherakada (%5,72tik %3,65era) eta PSN-PSOEren gorakada (%3,94tik %7,55era) ere azpimarragarria da.

Bortzirietan ere NaBai izan da boto gehien jaso dituen, orain lau urte baino 2 puntu gehiago (botoen %52,55a). Baliogabetutakoen kopurua da NaBairen ondortik datorrena. Halere, 2003an baino guttiago. Arantzan eta Beran goiti egin arren, Etxalar, Igantzi eta Lesakan beheiti egin dute eta horrek ekarri du aldaketa: 2007an nuloak %18 dira; 2003an ia %19 ziren. Hirugarren indarra UPN izan da, aitzinekoan bezala, %16ko babesarekin. Bertzalde, PSNk goiti egin du (3 puntu) eta CDNk beheiti (puntu bakarra).

Leitzaldean ere, NaBai koalizioa izan da bozkatuena, duela lau urte bezalatsuko portzentaiarekin: botoen %41,56. Baina boto baliogabeen kopurua ere altua izan da eskualde honetan, %35,20koa izan baita, 2003an baino 4 puntu gehiago. Boto baliogabeek ari garela ezin aipatu gabe utzi Goizuetako kasua. Izan ere, boto guztien artean, baliogabetutakoen kopuruak beste gainontzeko taldeenak gauditu ditu, 284 boto guztira. UPNk ere beherakada nabarmena izan du, 2003an botoen %14,65 jaso zituelako eta aurren %11,90. CDNk ere beheiti egin du, aurrekoan jasotakoaren ia erdia eskuratu duelako 2007an (botoen %6,41 eskuratzetik, %3,6 izatera). Aitzitik, PSN-PSOEek goiti egin du 1,81 puntutan.

Urdazubi eta Zugarramurdin indar nagusienak diren NaBaik eta UPNk gorakada nabaritu dute, batez ere koalizioak. Botoen %41,77 lortu zituen NaBaik 2003an, eta 2007an 5 puntu gehiago, %46,60. Erregionalisten kasuan, gorakada tikiagoa izan da, baina bai aipatzekoa. Historikoki izandako nagusitasuna 2003an galdu zuen UPNk, baina azken hauteskunde hauetan ere hainbat boto berreskuratu ditu: %29,24 izatetik, botoen %32 eskuratzera pasatu da 2007an. Baliteke CDNk zonaldean izan duen beherakadarik nabarmenena Urdazubi eta Zugarramurdin gertatu izana, izan ere, ia 8 puntu galdu ditu (2003an botoen %14,36 lortu zituen; 2007an %6,55 jaso ditu). PSN-PSOEek, berriz, puntu batean egin du goiti.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apeztexea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitzeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitzeta	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du

• IRAKURLEAK MINTZO •

'Goizueta astintzen'

jaio da!

Aspaldidanik gustatu izan zaigu goizueta-rroi gure inguruko berri jasotzea modu batean zein bestean. Arrazoi honengatik esan dezakegu izaten dutela hainbesteko arrakasta bai *Ttipi-Ttapa* eta baita *Xapo* aldizkariak ere.

Arrakasta hau aprobetxatuz, Goizuetako Segi gazte erakundeak hiru hilero aldizkari hau kaleratzeko konpromisoa hartu du. Batez ere, herriko eta bereziki gazteon inguruko informazioa argitaratuz. Bide batez, gure lanketaren berri emango dugu ahalik eta zehatzten zuengana iristeko eta zuek ere barneratu ahal izateko.

Lehen aipatu bezala, hiru hilero aurkituko duzu irakurgai herriko hainbat taberna eta erakunde publikoetan. Beraz, harira egon nahi baduzu irakurri *Goizueta astintzen* eta gozatu!

Bestalde, aldizkari-rako ekarpenen bat egin nahi izanez gero, aukera guztiak dituzu *goizuastintzen@gaztesarea.net*era zure proposamena bidaliz.

Goizuetako Segi

Eskerrik asko

Goizueta

Elkartasuna taldea osatzen dugun guztion aldetik, bihotz bihotzez, eskerrik asko haundi bat bidali nahi dizuegu, maiatzaren 27ko hauteskundeetan gure alde bozka eman zenuten goizuetar guztiei. Alkatetza, lau botorengatik ez genuen lortu, baina herrian bizi diren gehien-go baten babesa dugulakoan gaude.

Emaitzak aztertzen jarri ondoren, igandean herria nola mobilizatu zen ikusteak poza ematen du, eta boto bakoi-tzak zer nolako indarra duen ikusteak demokraziari on egiten dio. Zenbakietan sartuz gero, 288 goizuetarrek, beste 292 herritarrei mezu garbi bat bidali diete: Goizuetan, abertzale izanda ere, lan egiteko forma ezberdinak badaudela, ingurukoa errespetatuz, ezin ikusiak baztertuz, eta beti ere ezberdin pentsatzen duena ere goizuetar dela onartuz.

Nafarroari begira, Miguel Sanzen agurra izango delakoan gaude, eta haize berriek nondik jotzen duten zain gertatzen gara. Goizuetan ez bezala, beste zenbait herritan gertatu den de-

mokrazia falta, publikoki salatu nahi dugu eta, behingoz, guztiok desio dugun bake prozesua lortzeko bidea, martxan jartzeko eskatu goi karguetan dauden alderdi politiko, instituzio eta erakunde guztiei.

Miel Joxe Lekuonak zuzentzen duen EAE-ANVri zorionak emateaz ez gara ahaztu, baina, baita mezu garbi bat ere bidali nahi diogu: herritarren alde lan egiten baduzue, zuen ondoan izango gaituzuela, ilusioz eta gogotsu, hurrengo lau urteetako lanari ekiteko prest. Aldiz, lo kuluxkan jartzen bazarete, edo eta herritar guztiak berdin ez badituzue onartzen, akuilu lana ere egingen dugula ziurtatzen dizuegu.

Azkenik, Goizuetako seme-alaba, gazte, guraso eta aitona-amon guztiei mezu bat: herrian ilusioa eta bizi poza sortu dugula, Goizueta Bizirik dagoela demostratu dugula, eta Udalaren eskuetan bakarrik ezin dela utzi herriaren geroa. Lau urte gogorak, baina oparoak izango diren esperantza eta desioa luzatzen dugu Elkartasuna taldetik.

Agur bero bat guztiei. Gora Goizueta! eta gora Euskal Herria!

Elkartasuna taldea

Berako herriari

1- ESKERTZA

Berako Eusko Abertzale Ekintzak Udal Hauteskundeetan emaitza hagitzen ona lortu dugu. Botoa emateko mahai guztietan nagusitu gara eta denetara 596 herritarren botoak eskuratu ditugu.

Halaber, ezin dugu aipatu gabe utzi Eusko Abertzale Ekintzak Nafarroako Parlamenturako aurkeztutako zerrendak, baldintzarik kaskarrerean, bildutako herri babesa. Hori dela eta sostengua adierazi diguzuen guztioi eskerrik beroena ematen dizuegu. Horrekin batera Berako herriaren alde eta Euskal Herriaren alde gure konpromiso militantea berretsi nahi dugu, jakin baitakigu, lau urtean behin baldintzapean gauzatutako boto bilketak ez duela gure demokrazia gosea asetzen. Eguneroko herri-gintza, parte-hartze, eta auzolanean sinisten dugu eta laster Herriko Etxeko batzordeetan, lantegian edo karrikan elkar ikusiko dugulakoan, agur eta mila esker.

2- GURE ASMOAK

Beran maiatzaren 27ko hauteskundeetako emaitzek erakutsi duten egoera dela-eta, gu-

Iñaki Alzueta margoak
Fotografak - Berraketa
Dokumentazioa (argazkiak, bideoak...)
Publizitatea - Lantzerak eta berraketa kolektibak
Nafarroa Euzko - Lantzerak Auzo - ETTI UNGARIZ
Tfnoa: 659 862 417

carroba
gozategia okindegi
27 de etxegara 25 bato: 1.945 63 08 89
31760 berri (navarra) www.carroba.net

• IRAKURLEAK MINTZO •

re jarrera argia plazaratu nahi dugu.

Beratarrak aldaketa-
ren alde bozkatu duzue,
eta aurkeztutako lau ze-
rrendetatik, gurea izan da
aise bozkatuena eta kar-
gu gehien lortu dituen.
Herri Etxean aldaketa ho-
ri gauzatzeko gure jen-
dearengan jarri du konfi-
dantza herriak, eta ondo-
rioz, **alkatetza guretzat**
izan beharko litzateke. Ho-
rren aurka egiten diren ko-
alizio edo elkartzeek he-
rritarren erabakia desi-
txuratzen dute eta lege-
aldi honetako lehenbizi-
ko erabakia herritarren
nahiaren aurkakoa baldin
bada, gaizki hasi behar
dugu. Gainera, koalizio
hauek maiz beren irizpi-
dearen aurkako erabakiak
hartzera bultzatzen dituzte
taldeak, eta hori denen
kalterako izaten da.

Gure ustez, zerrendan
nahiz zerrendatik kanpo,
jende talde polita bildu ga-
ra udalgintzan aritzeko,
eta agertu diguzuen kon-

fidantza eskertzeko, la-
nean partaidetza irekia
eskaintzen dizuegu.

Berako EAE-ANV

Eskerrak

arantzarrei

Epa herritarrak! Idaz-
ki honen bidez eskerrak
eman nahi dizkizuegu
Arantza Aitzinera talde-
aren izenean udal hautes-
kunde hauetan eman di-
guzuen babesarengatik.

Aldi berean, eskertze-
koa eta goraipatzekoa
izan da hauteskunde
hauetan izan den parte-
hartzea, jende aunitz jo-
an da botoa ematera, zen-
tsoaren %84 inguru. Da-
tu horrek herritarren in-
plikazioa eta parte-har-
tzea haundia izan dela
adierazten digu, eta ho-
rregatik hagitx kontent
gaude.

Guregan konfidantza
jarri duzueni eskerrak
aunitz. Lan egiteko gogoia

eta ilusioa indartu zaizki-
gu emaitzak ikusirik, eta
hurrengo lau urte haue-
tan herriaren eta herrita-
rren alde gogor lan egi-
nen dugula agintzen di-
zuegu denei, bai guregan
konfiatu duzuenen alde,
bai eta konfiatu ez du-
zuenen alde ere. Ez du-
gu inor baztertuko.

Agudo martxan jarriko
da udal talde berria, eta
bertan herritarren orde-
zkeriak egonen gara el-
karlanean. Ez dugu nahi
inor ordezkari gabe gel-
ditzea.

Zuen iritzi eta propo-
samenak kontuan hartu-
ko ditugu, eta aunitz es-
kertu ere bai. Horretara-
ko herriko hainbat tokitan
jarrita dauden kuxkak era-
bil daitezke, edo zuzene-
an Herri Etxean adierazi.

Arantzaren alde eta
arantzarren alde Arantza
aitzinera joan dadin!

Eskerrak aunitz!!!

**Arantza
Aitzinera**

Goizuetako Segiri

Gure herrian, euskera
izan da gure hizkuntza eta
ongi iduritzen zait bere al-
de egiten ari zareten bo-
rrokagatik. Ez nago ados
ordea, Goizutako udala-
ra aurkeztu den elkarta-
suna taldearen aurka
egindako propagandaga-
tik euskarari buruz (maia-
tzaren 26an herrian ager-
tu diren papertxo horie-
taz ari naiz). Non lana egi-
ña badago, zuen inguru-
koetatik hasita. Adibidez
Correos y telégrafos edo
txino auzon tabernako ate
aurrean erva jartzen
duen kartel horretan... eta
abar. Beste baterako gau-
zak kontutan eduki. Es-
kerrik asko.

Goizuetar bat

Urtxume taldearen

eskertza

Honen bidez, bihotzez
eskertu nahi dizuegu UR-
TXUME taldeari hautes-
kunde hauetan konfidan-
tza eman diozuen urda-
zubiar guztiei, nahiz eta
giro nahasia sortu nahi
izan duten batzuk, eraso
pertsonek oinarrituta.

Urdazubiar aunitzen
zintzotasun honek inda-
rra ematen digu eta la-
nean segituko dugu, egi-
nahalak eginez, heldu den
hauteskundeetan aber-
tzale euskaldun bat izan
dezan herriak berriro al-
kate.

Andres Diharassarry
Urtxume taldearen
izenean



- Zinema programazioa eta erakustaldiak
- Bideo / Multimedia emanaldiak
- Soinuztapen orokorrak
- Tresneria alokairua eta solmenta

LATSAGA
KUB-ENTZUZUZKO ZERBITZUAK

Leakoa T/F 948 637 546 E: latsaga@telefonica.net



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colón Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN



Zalain
jateketa - hostala

14 logela bainu
eta TBrekin

Zalain auxoa s/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

**Haur jaiaberrientzako
osteopatia tratamenduak**



Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

Itzea 20 • 31780 Bera • Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

ERREPIDEA

Almandoz eta Belateko tuneletan mantenimendu lanetan ari dira

Ondorioz, gauez trafikoa moztu egiten dute aldizka, 22:30etik 06:30era

ttipi-ttapa

Belate eta Almandozko tuneletan berrikuste eta mantenimendu lanak egiten ari dira. Joan den ekainaren 3an abiatu ziren obrak eta gutti goitibeheiti hilabete bat iraunen dute. Lanak egiteko erreil bat erabiltzen ari dira, eta horregatik, aldizka trafikoa moztu egiten dute Belate eta Almandozko tuneletan, semaforo zein seinalagileen bitartez. Halere, trafiko arazoak ahalik eta gehien saihesteko aldera, gauez egiten ari dira lanak, 22:30etik 06:30ak arte.

Berrikuste eta mantenimendu lan horien artean, argiztapen sistema ikuskatzen ari dira, baita suteen aurkako sistema, aireztapena eta iragazgaizpena eta tu-



ARTXIBOA

Obrek gutti goitibeheiti hilabete bat iraunen dute.

nelen estaldurak ere.

laz baino 7 hildako guttiago Nafarroako trafiko-istripuetan

Urte hasieratik maiatz

arteko aurtengo datuak joan den urtekoak baino hobeak dira Nafarroako errepide sarean. Izan ere, orain arte, iaz baino %26,9 hildako guttiago izan dira trafiko-

istripuetan. Guztira 19 lagun hil dira aurtun Nafarroan; 2006an, 26 lagun hil ziren. Aurtengo datuei begira, apirila izan da hilabeterik okerrrena, 8 hildako utzi baitzituen.

FLASH

UGT: «Zalaingo lan hitzarmena blokeatuta egoteak lanpostuak arriskuan jartzen ditu»

Zalaingo tubo lantegia-
ren eta langileen etor-
kizuna kolokan daude-
la iritzi dio UGTk. Ho-
rrela jakinarazi zuen sin-
dikatuak maiatzaren 31n
kaleratutako prentsa
ohar batean. Sindika-
tuaren hitzetan, lan hi-
tzarmena blokeatuta da-
go, eta hori «Zalainen
gehiengoaren duden sindi-
katuek zuzendaritzak
gehitu nahi dituen lan
egunak onartzen ez di-
tuztelako gertatzen da».
Zuzendaritzak zortzi lan
egun gehiago ezarri nahi
ditu, eta UGT proposa-
men hori onartzearen
aldekoea da, horrek ego-
era hobetuko lukeela us-
te baitu. Gisa berean,
Condesak erosi dituen
Aceraliako bertze bi en-
presetan (Berrioplano
eta Mieres) dagoeneko
lan hitzarmenak sinatu
dituztela ere gaineratu
zuen oharrean, «Be-
rrioplanoaren kasuan
ELAren babesarekin».

ZUBIONDO
Jatetxea
Bogardotegia Jatetxea
Alasta karrika
TLF. 948 625 472
BERA NAFARROA

ttipi
ttapa
☎ (0034) 948 635458

Larkilanak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
ORRATZITZA PROIEKTUAK
URRATZITZA PROIEKTUAK
ETXO BERRITZAK
NABARRA
KONSTRUKTUA
INFORMAZIOA: 33
SANTIAGO 35 2ºB ELIZONDO TLF 948 581 821

alletu dira ibardingo haize berriak...

venta AGUIRRE benta

THE COTTÉ
TOMMY
PEPE JEANS
EDC
ESPRIT

JATETXEA
DENDA

IBARDINGO GAINA • BERA
948 631 158 • 948 631 314

BERA

Altzateko bestak ekainaren 15, 16 eta 17an ospatuko dira

Kirol ekitaldiak, kontzertuak,
dantzak eta abar izanen dira

Amaia eta Ainhoa

Ortziral honetan hasiko dira aurtengo Altzateko bestak. Hainbat ekitaldi prestatu dituzte horretarako eta horien berri erdiko gehigarrian aurkitu ahal izanen dizue (19. orrialdea).

Larunbatean jakinen da nor izanen den alkate berria

Maiatzaren 27an egin ziren hauteskundeetan lau talde bozkatzeko aukera izan zen. 594 botoekin ANV izan zen talderik bozkatue-na eta lau hautetsi lortu zituen, EAk hiru hautetsi (483 boto) eta EAJ eta Aralarrek bina (366 eta 314 botoekin, hurrenez hurren). Boto kopuruen arabera, Josu Iratzoki izanen litzateke alkate berria, baina dakigunez gainerako taldeak bilerak egiten ari dira udal taldea osatzeko. Aukeretako bat EA eta EAJ elkartzea izan zitekeen, eta kasu horretan Helena Santes-tebanek segituko luke alkate izaten. Aipatu dигutenez, hauteskunde-

en aurretik Na Bai taldea osatzeko aukera ere aztertut zen eta orain ere hori izan zitekeen aukeretako bat. Halere, EAJk bere buruari botoa ematea ere ez du baztertzen. Aralarri dagokionez, litekeena da bere botoak beretzat gordetzea. Momentuz, kronika hau idatzi den momentuan (pasa den ortzegunean), talde ezberdinen arteko bilera-prozesua zabalik segitzen zuen, eta oraindik deus erabakirik ez zegoenez, aste hondar honetara esperatu behar ko da alkatetza argitze-koa.

Berako Oihua aldizkarirako lanak biltzeko epea zabalik

Urtero bezala, bestetako programarekin batera banatuko da *Berako Oihua* aldizkaria, eta Udalak beratar guztiak animatu nahi ditu beraien idatziak bidaltzera. Lanak nahi den gai eta luzerakoak izan daitezke eta irudi nahiz argazkiekin batera aurkeztu daitezke. Entrega-



ARTXIBOA

Berako III. Kirol Eguna

Larunbatean, ekainaren 16an, egingen da Berako III. Kirol Eguna, eta egun guztian kirola egiteko aukera izanen dugu. Goizean, 10:00etatik aitzinera, *aerobic* eta *ciclo indoor* klaseak emanen dira eta haur, gazte eta helduentzako Berako Herri Krosa ere antolatu da. Bazkari ederra egin ondotik, arratsaldean Ibardinen trial probaz gain, kiroldegi aurrean saskibaloia eta *kenpo-kai* erakustaldiaz gozatzeko aukera izanen da. Pilotalekuan haurrentzako zesta puntako tailerra eta profesionalen partida ere izanen dira. Ekitaldietan parte hartzea doan da.

tzeko epea ekainaren 22a bitarte luzatuko da eta posta elektronikoz —kultura@berakoudala.net— edo zuzenean Berako Kultur Etxera eramanez. Idatziak formatu digitalean eramatea eskertuko da. Bertzalde, herriko edozein enpresak *Berako Oihua* aldizkarian bere publizitatea argitaratzea nahi balu, 948 635458

Kontzertua

Datorren igandean, ekainaren 17an, Ertz Arte Guneak antolatuta Dean Robertsen kon-

tzertua izanen da. 17:30etik aitzinera Zelandia Berrikoaren musikaz gozatzeko aukera izanen da Kultur Etxean.

Saihesbideko bidegurutzea hobetzea aurreikusten du Gobernuaren Ekintza Planak

Alvaro Mirandak, Nafarroako Gobernuko Garraio eta Herri Lan kontseilariak, Nafarroako errepide sareko Puntu Arriskutsuetarako VIII. Ekintza Plana aurkeztu du. Plan honekin hiru puntu beltz eta arrisku-tsuak izan daitezkeen beste lau ezabatu edo hobetu nahi dira, eta horretarako, 4.901.432 eu-

roko inbertsioa aurrikusita dago. 2007 eta 2009 bitartean Nafarroa oso-ko borts zatitan hobekuntzak egingen dira, istripu aunitz gertatzen diren zati batean eta arriskutsuak izan daitezkeen bertze lau zatitan. Hain zuzen, Bortzirietan, Berako saihasbidea da puntu arriskutsuetako bat, eta bertan, lehenatasuna ez errespetatzeagatik, toki ezberdinetara iristeko sarre-ara-adarretan istripuak izaten dira. Seinalazioa eta balizak hobetuko dira, soinu-bandak jarriko dira eta abiadura-mugak aldatu. Bidegurutzea maila ezberdineko lotura bihurtzeko aukera ere aztertuko da.

Ark_b arkitektura bulegoa
Celia Lana Ranz
Huarte Goizai 7 - 31860 Leiza
645006478 tel

Eraikuntza
Hirigintza
Udal-ohikularitza

JAKONE - GOZATEGIA

Alzate 16 - BERA - 948032736

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

LESAKA

Musika eskolan izen emateko epea zabalik

Ikasle berriek eta instrumentua aukeratu behar dutenek ekainaren 25etik uztailaren 2ra

Aitor AROTZENA

Udal Musika Eskolan 2007-08 ikasturtean matrikulatzeko eta baja emateko epea zabalik dago. 2006-07 ikasturtean matrikuluak zeuden ikasleek bajak eta moldaketak egiteko aukera izanen dute ekainaren 18ra arte, 618 264659 telefonora deituz 9:00etatik 13:00etara. Epe horretan aldatarik ez balego, datoren ikasturterako matrikula berria eginen zaio ikasleari, dagokion ikasgaiekin.

5 urte eta gehiagoko ikasle berriak eta musika eta mugimendua II.eko ikasleen instrumentu aukeraketarako lehen matrikulazio epea, berriz, ekainaren 25etik uztailaren 2ra izanen da. Musika eskolatik jakinarazi dutenez, aurren instrumentu bakoitzaren eskaintza mugatuko da eta honengatik matrikula ekaineko epe honetan egiteko aholkatu dute, aukera gehiago izateko. Epe hone-

tan, helduen tailerra edo bertze ikasgaiak (informatika musikala, armonia...) egin nahi duten 13 urtez goitiko ikasleek ere izanen dute izen emateko aukera. Bigarren matrikulazio epea irailaren 10etik 14ra izanen da.

Josu Sanjurjo Nafarroako txapeladun

Josu Sanjurjok irabazi du Nafarroako 14 urte arteko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Iaz bigarren gelditu zen baina Larraintzarren ekainaren 2an jokatu zen finalean txapela janztea lortu zuen.

Finalerako, 14 urte baino guttiagoko 21 gazte sailkatu ziren. Lehen fasearen ondotik, epaimahaiak sei hoberenak aukeratu zituen haien artean txapela jokatzeko. Ofizioka bertze bertso batzuk kantatu ondotik, Josu Sanjurjo izendatu zuten irabazle eta azpitxapeldun Irati Majuelo. Ekainaren



Irantzu Pastorren kartelak iragarriko ditu Sanferminak

Aurten ere, Irantzu Pastorrek egindako kartelak iragarriko ditu Sanferminak. Besten egitarauaren azalean agertuko den obra ere berea izanen da, eta kontrazalekoa Paola Oskozena. Kartel lehiaketan 3 lan aurkeztu ziren, eta hauen artean Irantzuren "Gorria" aukeratu zuen epaimahaiak. Egitarauaren azalerako lehiaketan aurkeztu ziren 10 obren artean ere Irantzuren lan bat aukeratu zuten, "Jota Dantza" izenekoa. Bi lan hauei esker 1.000 euroko saria eskuratuko du 500 kartelarengatik eta bertze 500 azalarengatik.

Aurreikusia ez bazen ere, egitarauaren azalerako lehiaketan aipamen berezi bat ematea erabaki zuen epaimahaiak. Hau izaskun Obesorentzat izan zen Txistulariak izeneko lanarengatik, eta horri esker, 250 euro eskuratuko ditu. Aurten, hurrei zuzendutako lehiaketa ere antolatu zuten irabazlearen lana egitarauaren kontra azalean agertuko delarik. Aurkeztu ziren 95 lanen artean, Paola Oskozen marrazkia hautatu zuen epaimahaiak, eta bi aipamen berezi ere eman zituen, lehena Maite Odriozolari, eta bigarrena Mikel Leizari. Sariei dagokionez Paolak 300 euroko balea irabazi du Lesakako dendetan eskolako materiala erosteko, eta bertze biek 100na euroko balea.

23an Altsasun jokatu den Euskal Herriko fi-

nalean Nafarroa ordezkatu dute biek.

FLASH

Ikastolaren ikasturte akabailako besta

Ekainaren 23an, larunbatarekin, ospatuko du Tantarumairu ikastolak ikasturte bukaerako besta eta horretarako ikasle, ikasle ohi, irakasle, guraso eta ikastolako guraso ohiak gonbidatu ditu. 12:00etan ikasleen jaialdia izanen da ikusgai. 14:00etan bazkaria izanen dute ikastolako patioan eta 16:00etan musika eta jokuak.

Unai Etxepare gogoan Anayetara autobusa

Unai Etxeparearen lagun eta senideek oroitarria ezartzeko asmoa dute lesakar gaztea hil zen lekuan, Pirinioetako Anayet mendian. Hori dela eta, larunbat honetan, ekainaren 16an, autobusa aterako da goizeko 6:00etan Arrupeko pisuetatik. Izena emateko Arrano ostatura jo behar da (948 627597 telefonoa). Itzulia, afaria eginen da Arranon bertan.

Urdi enpresak kudeatuko ditu udal igerilekuak

Urdi S.L. enpresak kudeatuko ditu udal igerileku estaliaren instalazioak. Maiatzaren 22an hartu zuen Udalak erabakia aho batez. Estaliaren lanak aitzintzen diren bitartean, udako igerilekuaren denboraldia ekainaren 28an irekiko da.



ETXALAR

Akabatu dituzte Herriko Etxeko obra-lanak

Hiri-Hondakinen Mankomunitatea eta Gizarte Zerbitzuko bulegoak hirugarren solairuan daude orain

Joseba eta Nerea

Maiatz hondarrean akabatu zituzten 2006ko abenduan hasitako Herriko Etxeko obrak. Ordura arte lehenbiziko solairuan zeuden Hiri Hondakinen Mankomunitatea eta Gizarte Zerbitzuko bulegoak, baina hirugarren solairua berrituz, aunitzez leku hobean paratu dituzte. Patxi Irisarri alkateak erran digunez, «*modu honetan jendeari aunitzez zerbitzu hobea eskaini ahal izanen diote langileek, lehen ez baitzeuden beharrezko kondizioetan*». Igogailuko obrak ere bukatu dira baina baimenaren zain daude martxan jarzeko.

Gasna Feria arrakastatsua

Eguraldi ederraren laguntzaz, giro onean joan zen aurtengo Gasna eta Artisau Feria Egu-

na. Goizean goizetik jende parrasta hurbildu zen plaza bazterrera. Eskulangileen lana ezagutu eta Altxatak paratutako postuan talo goxoa jateko aukera izan zen. Oroigarriak erosten ere ikusi genuen bat baino gehiago.

BERRIKUNTZA: ARDI-MOZTEA

Karteletan iragarrita ez bazegoen ere, herriko bi gazte ardi moztzen aritu ziren plazan; Joseba Danboriena eta Jabier Galarregi. Gauza berria izaki, ikusmin handia sortu zuten. Jende aunitz egondu zen, herri bazterretik, euren lanari begira.

HERRIKO TRIKITILARIEK SAIO POLITA

Herriko trikitilari gazteek emanaldi berezia eskaini zuten eguerdi aldean. Feria Egunerako propio prestatutako

saioan, perkusio-erritmoak, betiko doinuak, eta gaur-gaurko abesti ezagunak aditu ahal izan ziren.

ISIDRO ARIZTEGI, BI ALDIZ TXAPELDUN

Basateko Bordako Isidro Ariztegi bi aldiz izan zen irabazle. Gasna Lehiaketako hirugarren postua berak irabazi zuen eta Etxalarko gasna hoberena ere berea izan zen. Normalean, klasifikazio orokorrean saria irabazten duenak ezin du Etxalarko klasifikazioan ere saria irabazi. Baina epaimahaiak erabaki zuen Etxalarkoen artean ez zegoela saria emateko moduko mailarik, eta Isidro Ariztegi eman zioten lehen saria ere.

120 LAGUN

HERRI-BAZKARIAN

Inoiz baino jende gehiago bildu zen fron-



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

Gaineko argazkian Joseba Danboriena eta Jabier Galarregi ardi-mozten. Behean, aurtengo gasna lehiaketako irabazleak. Lehenbiziko saria Urdaizubiko Etxalekukoentzat izan zen. Bigarrena Urrozko Kontxi Juanenarentzat, eta hirugarrena Isidro Ariztegiarentzat (argazkian Patxi Elizalde). Etxalarkoen artean, Isidro Ariztegi (berriz ere) eta Intzeko Bordako Josetxo Ariztegi irabazi zuten (azken honek bigarren saria).

toian bazkaltzera. Artisau eta herritarren artean, 120 lagunek dastatu zituzten Herriko Ostatuko menestra eta panaderian erretako bil-

dotsa. Giro onak eta bazkalondo luzeak ez zuten hutsik egin. Arratsaldean, herriko dantzari ttiekiek saioa eskaini zuten.

bake-prozesuan aurrerapausorik ezean

gizarteak erabaki nahi du

sinatu herri-kontsulta baten deialdia eskatzeko

www.lokarri.org | 902 42 10 10 | Lokarri

ARANTZA

Ainara Maia alkate berria izanen da heldu den 4 urteetan

Ortzegunetik hilaren 20a bitarte ikasketa bidaian izanen dira eskolakoak Bartzelonan

Nerea ALTZURI

Maiatzaren 27ko emaitzen berri azken alean jaso zen xehetasun osoz. Halere, tarte honetan bertze zenbait xehetasun ere emateko lerro batzuk baliatu ditugu. Egun horretako udal eta foru hauteskundeetarako herriko zentsoan 595 herritar boto emateko aukerarekin izanik, %84 inguruko parte-hartzea izan zen. Beraz, herritar aunitzek botoa eman zuela ondorioztatu dezakegu. Herriko Eskolako gimnasioan kokatu zen ohi bezala bozetarako aretoa, eta Jabierto Iparragirre, Ines Gonzalez eta M^a Isabel Tarazonak osatu zuten hauteskunde-mahaia. Goizeko 9etan ireki, eta ilunabarreko 8etan itxi zen hauteskunde-ontzia. Tenore horretan, herritarrez topera bete-

ta zegoen aretoan zenbaketa lana hasi zen. Arratseko 10ak baziren, herriko bozkak kontatu orduko, eta emaitzak hauek: talderik bozkatuena Arantza Aitzine-ira izan zen 276 botorekin, eta EAJ-PNVk 204 jaso zituen. Boto baliogabeak 12 izan ziren, eta xuriak, aldiz, 9.

Ondotik, Nafarroako Legebiltzarrerako bozkak zenbatu zituzten. Gogoratuko duzue Estatuko Fiskaltzak EAE-ANV baliogabetu zuen parlamentuan, eta emaitzak hurrengoak izan ziren: NaBaik 239, UPNk 63, PSNk 21, NEBk 0, CDNk 15, EKAK bat ere ez, RCN-NOKek 2, baliogabeak 143 eta zuriak 10.

Larunbat goizean, hilak 16k, Herriko Etxeko Pleno Aretoan, kargu hartze ekitaldia egingen da. Bertze aldaketik ez



ARGAZKIA: WWW.ARANTZA.NET

Maiatza nahasia joan bazaigu ere, azkenean ekainarekin batera eguraldiak ere hobera egin du. Garaian gaudenez, ea argazki honetan bezala gereziondoak beuren fruitua ematen duten.

bada, honela osatuko da Udala: Arantza Aitzineratik 4 hautetsirekin, Ainara Maia alkate, Jaime Iturria, Aitor Telletxea eta Ainara Amoros. Eta EAJ-PNVtik, 3 zinegotzi: Vicente Arozena (orain arteko alkate), Fco. Javier Taberna eta Julio Lukanbio.

Ikasbidaian Bartzelonan

Herriko eskolan ikasketak amaitu eta ikasbidaian honezkero ez badira, laster izanen dira. Izan ere, ortzegun honetan eskolako zaharrenak ikasketa bidaian abiatzekoak dira Bartzelonara. Gogoan dugu guk ere Bartzelona geure egin genuen-

nean, baina orduz geroztik, han ere, eraikin, zerbitzu eta abar berri aunitz egin dira. Ekainaren 20an 6 ikasleak eta Joxe Ramon Amoros eta Patxi Leon irakasleak etxera itzuliko dira, baina bitartean, egunez egun prestatutako egitaraua inbidia-garria da. Ortzegun goizean, 10:45ean Noainen hegazkina hartuko dute, arratsalderako aterpetxean izanen dira eta ingurua bisitatuz, afariko tenorea ailegatu-ko zaie. Ondotik, jo-koak izanen dituzte.

Biharamunean, ortziralean, Plaza Catalunya bisitatuko dute, eta autobus turistikoan hiria ezagutuko, tartean Sagrada Familia ere.

Bazkalondoan, Pueblo Espaynol ikusiko dute. Larunbatean, egun guziz Isla Fantasia Akua-parken gozatuko dute. Igandean, hilaren 17an, Zoa eta Ciutadellako parkea ikusiko dituzte goizean, eta bazkalondoren, Ranblak eta Katedrala. Ekainaren 18an, asteari hasiera emateko, trenez Port Aventura joanen dira, eta han egun osoan egonen dira. Azken aurreko egunean, ekainaren 19an, goizean Zientzia Museoa ikusiko dute, eta atsaldetan, portua. Eta horrela, itzulera egunera ailegatu-ko dira, ekainaren 20an, 13:00etan hegazkinez etxerako bidea hartuko dute. Ongi pasa dezatela!!

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

KATER-BIKE
Kanttonberri, 1 • BERA
948 63 12 18

Tel: 948 634 179
ARANTZA

ATERPE
ALBERGIA - JATETXEA

BAR
Botxo
OSTATUA

Don IRUDI
bertziru@telefonica.net

KARTELAK - KANISATZAK - OIGENAK - TATSAERAK (Maki, azken neurri - dirimonekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK - BIKINGOTZAK - TITULU BILTZEAN - PLANAK
ENKARGERNAZTOKAK - PLASTIKOAK - PERPENTZAK - BULEGEO MATERIALA
DISKINU GRAFIA - LOGOTIPOAK - ERROTIOTZAK - IMPRENTA

Ertegaru, 26 Eskutzeakoa Bidea 10 • BERA • Tel/Fax: 948 631 571

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

SUNBILLA

Ortziral honetan irekiko ditu ateak udal igerilekuak

Igeriketa ikastaroak Aritz Arriolak emanen ditu

Jaione OTXANDORENA

Urtero bezela, badator igerilekuko denboraldia, eta bertze herrietan bezala, gurean ere udal igerilekuak laster zabalduko ditu ateak. Aurtengo denboraldia ortziral honetan, ekainaren 15ean, hasiko da eta irailaren 15a bitarte luzatuko. Herriko bi neska gaztek hartu dute igerilekuko ardura: Naiara Arretxea

eta Izaro Altzurik. Aurreko urteetan bezala, bonoak Rural Kutxan, Nafarroako Kutxan edo igerilekuan bertan hartzen ahal izanen dira. Igeriketako ikastaroak, berriz, Aritz Arriolak emanen ditu eta interesatuek beregana jo beharko dute.

Eskolako txangoa

Ikasturte bukaera hur-



2007KO UDAKO DENBORALDIKO PREZIOAK UDAL IGERILEKUAN			
	HIRUHILABETEKOA	HILABETEKOA	EGUNEKOA
0-6 urteak	Doan	Doan	Doan
6-12 urteak	16,5 euro	12 euro	2 euro
12-18 urteak	23 euro	19 euro	2,5 euro
18 urtetik goiti	35,5 euro	24,5 euro	3,8 euro

biltzearekin batera, heldu den asteartean, hilak 19, eskolako haurrek txangoa egingen du-

te. Goizean Donostiara joanen dira, eta Tren Txikian eta txalupan ibiliko dira. Eguerdian Guada-

lupen bazkalduko dute eta arratsaldean Hondarribiko hondartzan pasatuko dute.

Nafar merkaritzarako kalitate programa

Kalitateak aparteko bihurtzen zaitu



> **Javier Leiza** *Export-Bortzirak - Bera*

"Kalitate programak nire negozioari buruz erreflektionatu-arazi eta merkataritza nire bezeroen norabidean bideratzea ahalmenu zuen"

> **Carlos Ostiz** *Casa Ostiz - Doneztebe*

"Nire negozioaren barruko kudeaketa hobetzean nire bezeroei dagokionez hobetu dut"

Argibideak: 948 23 99 08 • calidad@comercionavarra.com

MALERREKA

Asteburu kulturala eginen da ortziral eta larunbatean Donamarian

Mus txapelketa, jokoak eta bertso afaria izanen dira, bertzeak bertze

ttipi-ttapa

Ortziral eta larunbat honetan eginen da Donamariako asteburu kulturala. Ortziral arratsan, mus txapelketarekin emanen diote hasiera asteburu kulturalari. Larunbatean, berriz, eguerdian goitibeherak izanen dira, eta ondotik bazkaria herriko ostatuan. Haur zein gazteentzako jokoak ere presatatu dituzte arratsalderako. Eta gauean, bertso afaria eginen da herriko ostatuan Julien Zelaieta eta Jon Elizetxe bertsolariekin. Egunari behar bezalako segida emateko, dantzaldia izanen da Agerralde akordeolariarekin.

nen da Agerralde akordeolariarekin.

Amaia Iraola Finlandian

Maiatza hilabete ona izan zen Amaia Iraola Doneztebeko akordeolariarentzat. Sari aunitz lortu ditu, eta horien artean berriki A Coruña eta Santanderren izandako bi nazioarteko lehiaketetan. Orain, ordea, Finlandiara begira dago. Hain zuzen, Ikaalingo Jaialdi ospetsuari. Guztira mundu osoko zortzi akordeoilarik parte hartuko dute ekainaren 29an eginen den Ikaalingo lehiaketan, eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Agenda 21 Malerrekan

2005ean Baztanen eta Bortzirietan abiatu bezala, Malerrekako Agenda 21 ere martxan da dagoeneko. Eskualdeko 13 udalerririk bat eginik, helburua etorkizuneko garapena nondik nora joan behar duen zehaztea izanen da. Prozesuari hasiera emateko, Terra-Prometeako lantalde irekiak antolatutako, Malerrekako eguneroko gaiak aztertze. Horrez gain, 20 urtetik goitiko 350 lagun elkarriketatzeko asmoa ere badago. Inkestaren emaitzak uda bukaeran jakinaraziko dituzte.

horien artean izanen da Amaia ere. Finlandiako telebista publikoak zuzenean emitituko du lehiaketa, ospe handiko saio batean.

Ortziral hau musika eskolan izena emateko azken eguna

Ikasle berrientzat ortziral hau izanen da Ago-

rreta Musika Eskolan matrikulatzeko azken eguna. Halere, berandu dabilzanentzat epe berezi bat zabalduko da irailean, 17tik 21era.

600 euroko diru txartelaren zozketa

Doneztebarrak Merkatarikarteak 600 euroko diru txartel bat zoz-

ketatuko du larunbat honetan, ekainak 16. Erosleen fidelitatea saritzeko asmoz, maiatzaren 28tik ortziral hau bitarteko bezeroen artean banatu diren txartelen artean zozketa eginen da, eta saridunak sei eguneko epea (ekainak 21 arte) izanen du herriko komertzioetan 600 euroko saria gastatzeko.

Toallak-Mantelariak-Oheko maindriak.
Eskolako haurren mantelak etab. bordatzen ditugu

Herriko bestatarako, kamisetak, eta blus peña bakoitzaren logotipoa eta izenekin bordatzen ditugu

Elberritz Plaz. Berriz 4.a eta ikusi bertako enkaintu!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo - braulio irarte 33, 1ºD - 31700
948250371 Iruñea - irabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

Betaurrekoak aldatu behar dituzula ?

Begiratu
ttipi-ttapa
telefono gidan

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284



Artesiagako Magnesita

Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua

Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore



ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.



ITUREN

DONEZTEBE

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende aunitz Trinitate Egunean

Ilunabarretik aitzinera, Gaubela taldeak plaza bazterrak alaitu zituen

Arkaitz MINDEGIA

Eguraldiak ez zuen aunitzik lagundu, baina halere, jende aunitz hurbildu zen Mendaurren. Eskualdeko herrietatik bildu zen jendea, eta urtero bezala, solasaldi ederrak egiteko aukera izan zen Mendaurren. Goizeko ibilaldia egin ondotik, enbaltsean bazkaria izan zuten iturendarrek, eta aurtiztarrek, berri, elkartean. Bazkalondoa girtzeko Kristian akordeolariak jo zuen, eta 20:30ak aldera denak herrira jautsi ziren. Ohitura den bezala, Aurtizko ostatueta tragoxka bat hartu eta 21:30ak aldera iturenera abiatu ziren denak musikariekin batera. Gaueko 11ak arte giro polita jarri zuen Gaubela taldeak plazan.



ARGAZKIA: ARANTXA ARIZTEGI
Besta giroaren erakusgarri, Trinitate Eguneako irudiak.

ARGAZKIA: A. MINDEGIA
Omenduak
Manuel Mindegia eta Rosalina Elizalde aurtiztarrek otsailaren 27an 50 urte egin zituzten ezkondurik. Arkupeak Elkarrekin ekainaren 5ean Gorraizen egindako bazkarian omenduak izan ziren.



PERTSONAIA

Javier MARIEZKURRENA

Hirugarren Espainiako Kamioi Lasterketan

Javier Mariezkurrena doneztebarrak lan bikaina egin zuen orain bizpahiru aste Albaceten (Espainia) jokatutako kamioi lasterketa batean. Albacete saio txukunaren ondorioz, Espainiako Txapelketan hirugarren sailkatu zen Europako 28 piloturen artean. Lehen saioan zazpigarren helmugaratu zen, eta bigarren, hamargarren.

Lizun
GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

ANSONEA
Ostatua-Jaletxea
Eguneroko menua eta
asteburutarren menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidassoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
Zurich Asegurak
Autoa, etxebizitza, irripa eta bizitza aseguruak
Lan aholkularitza
Nominak eta Aseguru Sozialak
Aholkularitza fiskala
Enpresa Deklarazioa, BEZa...
Inmobiliaria
Baserri, bodega, preku, etab... salmenta eta arakamua
Gestoria
Bilgailuen transferentziak, gidatzeiko kametaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago, 15 - ELIZONDO
Tfnak eta Faxak: 948 580 804
anzabal@anzabal.com



ABERASTASUNA

→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen**

sortzailea da. Zuzeneko 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak,

eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniaritza, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegiko sektorea.

→ Baztango gazteriar **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bilatzeko berriz eskualdetara joan behar izatea saihestuz.

INGURUGIROA

→ Artesiagako Magnesitarekin lurzorua eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarrizatuak diren soroak erdietsi eta azkarragoak.

→ **Ingurumen kalitatearen kontroleko filtro bikoitza** pasa beharko du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitz horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ **Teknologiarik aurreratuena ingurumenaren zerbitzura.** Uhal garraiatzaileen karentza, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurunearen berreskuratze dinamikoa bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erauzketa.



ETORKIZUNA

→ Artesiagako Magnesita errelebua emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bileran bertan.



→ **Epe ertain eta luzerako proiektua.** Erauzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epea bermatzen du, baina balleko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain daudenen jarduerak abokitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.



Artesiagako Magnesita

ABERASTASUNA | INGURUGIROA | ETORKIZUNA

SALDIAS

Sanjuan bestak ekainaren 22tik 25era

Igandean aizkora apostua jokatuko da mezondoan

Ostirala 22

20:00etan ohiturazko zopak Herriko Ostatuan. **Gaez** dantzaldia TRAKETS taldearekin.

Larunbata 23 Bezpera

9:00etan argi soinuak txistulariekin. 12:00etan herriko gazteen arteko herri kirolak. 18:00etan pilota partidak. Gazteak afizionatuen aurka arituko dira. 22:00etan Sanjuan suak. **Arratsalde** eta **gaez** dantzaldia TRAKETS taldearekin.

Igandea 24 San Juan

9:00etatik aurrera txistulariak herrian bar-



ARGAZKIA: PEDRO URRUTIAK UTZIA

Duela 50 urteko bestetan ere, aizkora saioa egin zen herrian. Orduan, herritarrek izan ziren protagonistak. Argazkian aizkora ari dena Celestino da, eta erakusten Patxiku. Atzean dagoena, Pedro Urrutia alkatea da.

na ibiliko dira. 10:00etatik eguerdi bitarte Be-

ti Alai txarangak alaituko du herria. 11:30ean

Meza Nagusia San Juan herriko patroia oheretan. 13:00etan aizkora apostua: Garikoitz Larretxea eta Oihan Larretxea lehengusuak, Ander Erasun eta Joseba Otaegiren aurka. 18:00etangazte eta afizionatuen arteko pilota partidak. **Arratsalde** eta **gaez** dantzaldia MODESTOrekin.

Astelehena 25

Goiz eta arratsalde umeentzako jokoak, karts eta gaztelu haizatuak. 11:00etan herriko mus txapelketa. 14:00etan herri bazkaria Herriko Ostatuan. **Arratsalde** eta **gaez** dantzaldia MODESTOrekin.

KULTURA

Markel Lizasoianek irabazi du bertso paper lehiaketa

ttipi-ttapa

Joan da Baztan-Bidasoako Bertso Paper Lehiaketaren 20. edizioa ere, eta sariak ere banatu dira: 12 urtebitartekoetan Sutil Etxenikek irabazi du, *Bertso jaialdia* lanarekin. 12-14 urtekoen artean, *Itxuraren garrantzia* lanarekin Amaia Elizagoien nagusitu da. 14-18 urtekoetan, Maialen Belarra *Lortuko dugu* lanarengatik, eta 18 urtetik goitikoetan, Markel Lizasoainen *Urkialana* izan da aukeratua.

ARESO

Unai Onsalo Elgetako txapelketan ari da

Sopelako Lau t'erdiko

Txapelketan txapela jantzi zuen

Juana Mari SAIZAR

Unai Onsalo pelotari gazteak oso emaitza onak eskuratzen segitzen du. Tolosako Beotibar pilotalekuan entrenatzen du Onsalok, Aurrera Saiatz kluban. Afizionatu mailan jokatzen du, eta Bizkaia aldean torneo askotan

parte hartzen du. Hain zuzen, Sopelako (Bizkaia) Lau t'erdiko Txapelketan, telebistaz ikusi ahal izan genuen Eguskizaren kontra. Adituek esaten dutenez, bere armarik onena kolpea da, eta gainera aurtasuna da, eta hori bere jokoan nabarmentzen



Unai Onsalo txukun ari da pilotan azkenaldian.

zaio. 22-19ko emaitzarekin txapeldun suertatu zen.

Ondotik beste bi torneotan parte hartu du, binakako txapelketetan, eta azpitxapeldun suer-



ARGAZKIAK: JUANA MARI

Lehen jaunartzeak

Oier, Maider eta Saioak lehen jaunartzea egin zuten ekainaren 3an.

tatu da, 22 eta 20 batean, eta bestean 22 eta 17. Orain, berriz, Elgeta txapelketan zortzi

onenen artean ari da eta zerbait polita egingo duenaren itxaropena badugu.

GOIZUETA

Depositu berriaren lurrak desjabetu ditu Nafarroako Gobernuak

Eraikiko den ur-depositu berriak 180 metro kubiko izanen ditu

Esteban AROTZENA

Toki Administrazioari Departamentuak lehengo astean hartutako akordioan, presazkoa deklaratu du Goiko Iturriko parajearen egin beharreko uraren depositu berriaren lurren okupazioa. Nahitaezko desjabetzen bidez eskuratuko ditu administrazioak lur hauen gaineko eskubideak.

225.000 euroko aurrekontua duten depositu eta kondukzioaren obrak duela lau pabost hilabete hasi zituen Zabalak eta Goikoetxea enpresak, baina ia-ia hasi bezain pronto geldia-

razi egin zituzten lanak berez komunak diren terrenean «jabeek». Honen aurrean, Udalak lruñera jo zuen, eta esan bezala, orain jaso du erantzuna.

Herritarren ur premia hartu du arrazoitzat Nafarroako Gobernuak desjabetzea agintzerakoan. Bi deposituetatik bat, 50 m³koa, zeharo hondatua dago, eta beste, 120 m³koa, ez omen da nahikoa herria hornitzeko. 180 m³koa izanen da orain eraikiko dena. Bi deposituen arteko lotura hidraulikoak eta 120 metro luzerako kondukzioak osatzen



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Goxaliren ikasturte bukaeran parte hartu zuten batzuk.

dute azkeneko Hiru Urteko Planeari onartu den obra hau.

Goxaliren ikasturte bukaera

Ikasturte honetako Goxaliri amaiera eman zitzaien maiatzaren 25ean kantu-merienda batekin. Ikasturteari amaiera bikaina eman zioten bertan bildu ziren haur, gazte, begirale, guraso eta antolatzaileek. Aurtengo ikasturtearen balorazioa positiboa egin da, eta horretan zerikusia izan dute,

besteak beste, pertsona bat kontratatu izanak (Alaitz Eskudero), eta honen laguntzaile sare bikainak, herriko gazte-txoei bilgune eta aisialdi entretenitua eskaini baitiete. Amaiera ekitaldi honek balio izan zuen Goxaliren bultzatzaile nagusi eta Xalto eskolako zuzendari den Ana Urdangarini agur esateko ere, 18 urteko egonaldi oparo baten ondotik, beste bide batzuk hartzea erabaki baitu irakasle hermaniarak. Olaia Lekuona herritarrek beteko du hutsu-

nea.

Eskolaz kanpoko kultur aktibitateetan umeen parte-hartzea bultzatu nahi izan du Ana Urdangarinek, baita emaitza ederrak lortu ere. Askok eta askok dira urte hauetan lruñetik herrira ekarritako sariak eta eskolarteko bertso-lari txapelketetan lortutakoak. **TTIPI-TTAPAK** ere agur esatearekin batera, eskerrak eman nahi dizkio Anari eman digun laguntzarengatik, eskolan sortzen den informazioa zuzen helarazi baitigu beti.

1951tik lentzeria-etxea

Casa Cambra

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

udaberriko eskaintza berria

albornozak • mantelak
edredoi nordikoak • kuxinak
ohe estalkiak • maindireak
toailak • edredoi-azal nordikoak

LEITZA

Zoladura konpontzeko lanak egin dituzte herriko txoko ugaritan

Obra gehienak Elbarren kalean egin dira

Joseba URKIOLA

Aspaldi hitzartutako proiektuari bidea emanez, herriko zenbait kale eta bideren zoladurak berritu eta egokitu dira. Konpontze-lanak Sakuluko bidean, Elbarren kalean eta kiroldegitik Osasun Etxera bitarteko zatian egin dira.

Elbarren kalean egin dakoak bereziki, lan ugari dira. Aipagarrien artean, Santander banketxeko gunea, Arzallus harategiaren parkeko gunea, Peritza ostatuko plaza eta Peritzatik Astizen etxea bitarteko bidea leudeke.

Aurrerako beste taldeak ere oporretan

Aurrera Futbol Taldeko lehen taldeak egin bezalaxe, neskek eta jubenilek ere amaitu dute aurtengo denboraldia. Urte hasieran aipatzen genuen bezala, bizpauru urtetako hutsartaren ostean itzuli ziren neskak, eta helburua, kirola eginez gozatu eta futbola oinarri hartuta,

aisialdia ederki igarotzea zen. Nesken araberak, helburu hau eduki bete dute eta sailkapenean oso ondo geratu ez badira ere, gustora dira eginiko lanarekin. Heldu den denboraldian ere, present izan direla ziurtatu dute.

Jubenilak ere jada oporretan dira. Hauek lehengo ikasturtean bueltatu ziren futbolera, eta lehen urteko esperientzia ezaren ostean, aurtengoan gauzak txukun egiteko gogotsu zeuden. Denboraldiari hasiera bikaina eman zioten, eta udazkenean garaipen mordo eskuratu. Dena den, neguaren etorrerarekin eta bestelako arazoak tarteko, taldeak ezin izan zuen hasierako bidea egiten jarraitu, eta pixkanaka-pixkanaka sailkapenean atzerantz joan ziren. Azkenean, 10. postuan geratu dira.

Aurrerako lehen taldeari dagokionean, esan, taldearen igoera ospatzeko larunbat honetan, hilak 16, afari be-



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

Artisau azoka, Kultur Astean

Aurreko urteekin alderatuz, astebete atzeratua etorri bada ere, Leitzako Kultur Asteko Artisau Azokan ohiko ikusgarritasuna present izan zen. Ekainaren 3an artista ugari bildu zen herrian, eta gehienak kanpotik etorriak baziren ere, izan zen herriko talde eta norbanako batzuren lanak ikuskatzeko aukera ere. Guztiak ahalegindu ziren herriko eta kanpotik gerturatutako ikuslego andana asetzen. Aurtengo edizio honetan ere, gauza asko ikusteko aukera egon zen. Batez ere, egurra eta berarekin eginiko objektuak nagusitu ziren. Dena den, papera, haria, beira, buztina, larrua... bezalako materialekin eginiko altxor bitxi orijinalak ere ikusgai egon ziren.

rezia antolatu dutela herrian.

Aralar Musika Eskolako matrikulazio kanpaina irekia

Urtero garai honetan egiten duen moduan, Aralar Musika Eskolak 2007/2008 ikasturteari begirako matrikulazio kanpaina abian jarria du. Aipatu, aurtengo ikasturtean ikasle izan direnei dagoeneko banatu zaizkiela izena emateko orriak. Beste guztientzat, aldiz, inprima-

kiak udaletxean eskuragarri egon dira. Izena emateko azken eguna, ekainaren 30a izan da.

Odol emaleen taldea sortu nahi da

Leitzako Gizarte Zerbitzuak odol emaleen taldea sortu nahi du, urtean bitan odola emateko. Talde hori sortzeko bidean, astelehenean, bilera informatiboa egin zuten Goizuetan, eta asteazkenean Leitzan.

Biribilgunea egiteko dirulaguntza

Gobernuak NA-170 (Leitza-Doneztebe) eta N-1700 (Leitza Lekunberri) errepideak elkartzen diren puntuan rotonda edo biribilgunea egiteko dirulaguntza onartu du. Leku arazoei aurre egitea da helburua, eta biribilgune berriko galtzadak 7 metro zabala izanen ditu. Obraren aurrekontua 262.939,82 eurokoa da, eta horietatik 123.036 emanen ditu Gobernuak.

Lanchas
PARKETAK • TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 639 735 - 407 406 781

gaztelu scl
iturgintza
kalifikazioa • saneamendua • gasa
Tfnoa: 948 510 066 • 948 510 156
Faxa: 948 510 856
LEITZA

ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458

INGURUMENA

Leurtza eta Aritzakungo bazterrak garbitzen ari dira

Larunbat honetan Aritzakunen arituko dira

ttipi-ttapa

Nafarroako Baliabide Naturalen Zentroak antolatuta, ekaineko asteburuetan Nafarroako hainbat ingurune garbitzen ari dira. Ekainaren 2an abiatu zuten ibilbidea Belaguan; joan den asteburuan Leurtzan aritu ziren eta heldu den asteburuan, larunbatean, Aritzakunen txanda izanen da.

Leurtzaren kasuan, kaltzada eraberritzen aritu ziren. Sasiak garbitu eta zaborrak bildu zituzten. Baztanen, berriaz, Aritzakungo naturagunea berreskuratzen ahaleginduko dira larunbat honetan. Sumusukobordako Bentaren ingurua garbitzea da asmoa, Urritzateko ubidearen inguruan. Lehenago benta zenak utzitako hondakinak ere omen daude inguruan eta horiek erretiratu nahi dituzte. Gaur egun, ehiztari eta mendizaleen topagunea da txoko hori. Aipatu, Baztanen kasuan, Baztan-Bidasoa aldeko Cederna-Garalur elkarteak eta Baztango Udalak laguntza eman dutela garbiketa egiteko.

Jardunaldi hauek irekiak dira, eta nahi duen orok parte hartu dezake. Horretarako, Baliabide Naturalen Zentroarekin jarri behar da harremanetan, 948 140818 telefonoan edo crana@crana.org-en. Laugarren eta azken garbiketa eguna Salazar-Iratin izanen da, ekainaren 23an.



Rural Kutxaren Gordailu Berezia



EUREKA!

DEN-DENA DUEN GORDAILU BAT ERRENTAGARRITASUN ALTUA ETA SEGURTASUN OSOA

INBERTSIOAREN %40a

%6,50
%6,60 T.A.E.

6 hilabeteko epean

INBERTSIOAREN %30a

%6,50
%6,50 T.A.E.

12 hilabeteko epean

INBERTSIOAREN %30a

%6
URTEKO NOMINALA

12, 24 edo 36 hilabeteko apean, akzio-saskiak duen bilakaeraren arabera (*)

%100ean bermatutako kapitala

Akzioak: Telefónica, Santander, Iberdrola eta Inditex.

(*) Lehen urtearen bukaeran 5 akzioen kotizazioa hasierako erreferentziaren pare edo gainetik geldituko balitz %6 T.A.E. eskuratuko da; %12 bigarren urtearen bukaeran gertatuko balitz (%5,83 T.A.E.) eta %18 hirugarren urtearen bukaeran (%5,67 T.A.E.), baldintza hau betetzen den urtean Gordailua automatikoki kitatuz.

Eskaintza honek balio du 2007ko uztailaren 5a bitarte edo jaukipena bete arte, aurrezki garbiaren maila Nafarroako Rural Kutxan handitzen duten pertsonentzat.

www.ruralvia.com
Tel: 902 310 902

nire aukera



BAZTAN

Azpilkuetan harrobia egiteko baimena eman du Udalak

Iruritako Harri Lan enpresak hareharria aterako du

Maite OTEIZA

Baztango Udalak Azpilkuetan harrobi bat irekitzeko baimena eman du. Iruritako Harri Lan enpresak izanen da harrobia irekiko duena, eta Eskiz inguruan izanen da hori. Aterako dutena hareharria da, eta bertzeak bertze, oinezko-entzako espaloiak eta etxeak egiteko erabiliko da.

Xareta eta Baztango medikuen azalpenak

Arizkuneneako goitiko sabaia ia-ia betarik, eskualdeko medikuek une honetan zein egoeratan dauden azaldu zuten. Aitzineko Ttipi-ttapan agertzen ziren arrazoiak; Nafarroa mailan ematen direnataz gain (kontratu txarrak, Osasunbidearen beharretara egokitu, soldata baxuak...) bertze batzuk ere kontuan har-

tu behar dira, bertakoak direlako. Erribera aldean, duela urte bat ematen zen arazoa guregana ere ailegatu da orain. Kontuan hartuz gero eta maizago gaten garela medikuarengana, zerbitzuak ez dira ugaritu, ezta langilegoa ere.

Bertzalde, bertako orografia ez da erakargarria profesionalendako, 400 kilometro koa drotan baserri aunitz dagoelako, eta arras hedatuak, gainera.

Istripua Almandozen

Jostailuak zeramtzan kamioi batek istripua izan zuen maiatzaren 31n Almandozko tunelean. Istripua Irune-rako bidean gertatu zen, eta zauriturik izan ez bazen ere, tunel bazterrak kalteak jasan zituen. Hondakinak erretiratzeko ziztuzten bitartean errail bat itxita egon zen.



ARGAZKIA: MIKEL SOBRINO

Behiak Erdizen

Urtero bezala, ekainaren 1ean Erdizen mugimendua somatu zen. Izan ere, Baztango nekazariak behiak Erdizen sartu zituzten. Baztango Udaleko guardek behiei VB seinalea markatu zieten, eta zenbatu ondotik, uda guzira pasoa eman zieten. Aurten inoiz baino jende gehiago bertaratu zen, EHNE sindikatuak eta Erdiz Bizirik plataformak gosari-hamaiketako antolatuta baitzuen egin nahi den harrobia kontra.



ARGAZKIA: DANI ARANAZ

Elkartasun Eguna Elizondon

Joan den maiatzaren 26an presoekiko elkartasun eguna ospatu zen Elizondon. Goiz-goizetik ekitaldiak izan ziren herrian: erakusketa, mus txapelketa, bazkaria, bertsolariak, kalejira... Eta akitzeko kontzertua.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Irarte karia
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

ITURRALDE
pvc & aluminio

667 264 025 • 948 581 967
maxene@terra.es

JULIE'S
ENGLISH ACADEMY CENTER
SPARK

Gandile ez dabilen pasko, amek, paskoak dabilen pasko eta zaitzakun dabilen pasko, urteko ingeles irakasketa.

Matrikulazio egunak
ekainaren 10etik 14ra

Tel: 948 580 175 / 948 580 850
ELIZONDO

BAZTAN



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Ekainaren 2an kontzertua eskaini zuten Bidasoako sei musika eskoletako ikasleek Elizondon.

Oporrak hartu baino lehen, ikasturte bukaerako kontzertuak

Maite OTEIZA

Maiatza eta ekainaren kontzertuak ikusteko aukera izan dugu, bertako musikarien eskutik. Batetik, maiatzaren Lekarozko institutuko kiroldegian, seigarrenez, Lekaroz, Doneztebe, Bera, Leitza eta Altsasuko ikasleek kontzertua eskaini zuten. Ikasturtean landutako lanen erakustaldia egin zuten, doinu ezagunak eta beraiek asmatutakoak joz. Leka-

rozko kontzertuen gibeletik, Doneztebe, Altsasu, Leitzan eta Bera beren urteko kontzertua eskaini zuten.

Bertalde, ekainaren 2an, Elizondon Bidasoako Musika Eskolen Topaketa egin zen. Lesaka, Bera, Irun, Hondarribia, Hendaia, Doneztebe eta Baztango musika eskoleko 515 ikasle eta irakasle bildu ziren: 58 txistulari, 36 akordeoilari, 66 trikitilari, 75 kamarakoak eta



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Merkatari Elkartearen sari banaketa

Maiatzaren 21az geroztik indarrean egon ondotik, ekainaren 5ean banatu zituen Bertan Merkatarik Elkartek "Irabazi zure pisua eurotan" kanpainako sariak. 20 eurotik goitiko erosketa egiteagatik txartel bat jaso zuten bezeroek, eta irabazleek euren pisuaren arabera diru kopurua jaso dute. Sari-dunak hauek izan dira: Almandozko Begoña Etxalar *Dia janaridenda*, Oronoz-Mugairiko Gurutze Aizpuru *Arkupe goxotegia*, Anizko Dorita Barrenetxe *Pottoki*, Irurritako Luismi Arraztoa *Iparla Kirolak*, Gartzaingo Milagros Zelaia *Ipingi arropadenda*, Irurritako M^a Cruz Aleman *Pinturas Irular*, Elizondoko Karmentxu Inziarte *Ruiz Etxea*, M^a Jose Bidegain elizondarra *Belzunegi*, Etxalarko Beñat Mitxeltorena *Mallenea* eta Lekarozko M^a Jose Etxeberria *Mirari Lentzeria*. Argazkian ageri dira sari-dunetako batzuk.

175 bandakoak. Tartean Baztango dantzariak ere aritu ziren.

Halere, prestatua zegoen goiz animatua, bertan behera gelditu zen eguraldiaren eraginez. Elizondon barna antolatuak ziren borts ibilbideak ez zituzten egin, musika tresnak ez hondatzeko. Ondorioz, Baztan pilotalekuan egin

behar izan zituzten ekitaldi guztiak.

9:00etan kanpoko musika eskolakoei ongi etorria egin zitzaion, gosaria zerbitzatuz. 11:00etatik aitzinera, partehartzaile guztien dako bokadiloak eta edariak banatu ziren, eta, ekitaldiari akabaila emateko, Agustin Olabe eta Evelinek Virginia

Aleman alkateari eta Carlos Garaiketxeak Kultura eta Hezkuntza zinegotziari eman zioten hitza. Segidan Virginiki, Carlosek, Santi Aldakok eta Isabel Biderterek oroigarri bana eman zieten eskoletako ordezkariari. Lekukoa edo semikortxea Bera-ko eskolako ordezkariari eman zioten.

POTTOKI
Pottokiri Plaza, 3-1 lehen
91003 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfn: 948 581 983
www.pottoki.com
info@pottoki.com
Aholagutza: 9:30 - 15:30
16:30 - 20:00

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Etxeko giroa
Iturritze auzoa - Tfn: 948 592 043
ORONÓZ - MUGAURI

Eskisari
Jaimie Urribe
Tfn: 948 580 013
ELIZONDO

BEHETIK
aulki jasotzaileak
943 372 870

ARKUPEAK

Urrezko eta Diamantezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenei omenaldia

Ekainaren 5ean Gorraizen

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratu
tuen elkarteak urteko
omenaldi-bazkaria egin
zuen ekainaren 5ean,
Gorraizen. 700 bat la-
gun bildu ziren Urrezko
eta Diamantezko Ez-

teiak bete dituzten senar-emazteak eta 85 urte bete dituzten bazkideak omentzera. Meza ematen Pello Zabalak ere lagundu zuen. Ondotik, banan-bana banatu ziren oroigarriak.

URREZKO EZTEIAK

Lorenzo IPARRAGIRRE	ALMONDOZ-Loreto	TABERNA	PETRIRENA	ARANTZA
Juan LEIZA DUKAZ-Milagros	MITXELENA	SEIN		ARANTZA
Tomas TABERNA	PETRIRENA-Julia	ITURRIA	ALZURI	ARANTZA
Salvador IRIARTE	SANSINENA-Mª Pilar	IRIARTE	IRIBARREN	ARIZKUN
Raimundo PEREZ	IRIARTE-Mª Josefa	GANBOA	JORAJURIA	BERA
Leon LASAGA	IRAZOKI-Mª Juana	TELLETXEA	OTXANDORENA	DONAMARIA
Lazaro BELARRA	VILLANUEVA-Cecilia	BELARRA	ARIZAMENA	DONEZTEBE
Felix SARASOLA	MARIN-Mercedes	SANZ	HUALDE	DONEZTEBE
Francisco BALDA	TELLETXEA-Monika	TELLETXEA	TELLETXEA	EZKURRA
Alfonso BENGOTXEA	SALTO-Antoni	TELLETXEA	ZOAZIA	ETXALAR
Juan IMAZ	ETXEZARRETA-Tere	IRAZOKI	LARRALDE	IRUN
Manuel MINDEGIA	GARMENDIA-Rosalina	ELIZALDE	IRAZABAL	ITUREN
Francisco BARRIOLA	ZABALETA-Mª Luisa	VILLABONA	SARALEGI	LEITZA
Jose CIA	LAZKOD-Catalina	ZABALETA	APIROZ	LEITZA
Santos MARTIN	TIRADO-Carmen	GARRIDO	MARTINEZ	NARBARTE
Santiago GONZALEZ	SANJURJO-Juana	IBARRA	IRIGOIEN	SUNBILLA



DIAMANTEZKO EZTEIAK

Martin SAGASTIBELTZA ZABALETA-Julia ALDIUNTZIN ZABALETA LEITZA

85 URTEKOAK

Ermin OSKOZ IÑARREA	ALMANDOZ
Ramona JAURENA USTARIZ	ARIZKUN
Maria ZALDUA BIDEGAIN	ARIZKUN
Teresa ETXEBESTE ZOZAIA	BERA
M ^a Gruz VAZQUEZ GUZMAN	BERA
Felix SARASOLA MARIN	DONEZTEBE
Victoriana BENGOTXEA MARIEZKURRENA	ERATSUN
M ^a Luisa FERNANDEZ MIHURA	ELIZONDO
Concha SOBRINO PETITE	ELIZONDO
Florencia DUHALDE ERRAMUZPE	ERRATZU
M ^a Dolores ARISTELA IZURIETA	ETXALAR
Juanita ARIZTEGI SANZBERRO	ETXALAR
Regina IBARRA ESPELOSIN	ETXALAR
Cipriano SANSINENA IRISARRI	ETXALAR
Francisca SANZBERRO ELIZALDE	ETXALAR
Natalia ZUBIETA SANZBERRO	ETXALAR
Manuel ETXEBERRIA	GOIZUETA
Maria SALABERRIA SALABERRIA	GOIZUETA
Florentina ALTUNA OLAZABAL	IRUN
Xeberi FAGOAGA GARRALDA	ZUBIETA
M ^a Josefa EUGI JAUNSARAS	IRURITA
M ^a Estefania OHARRIZ ALDABE	LEITZA
Maria OTIN SOLA	LEITZA
Belen PEREZ BARROSO	LEITZA
Joaquina ZESTAU ARRIBILLAGA	LEITZA
Micaela VERA ALEMAN	NARBARTE
Serapia ALDABE MITXEO	OITZ
Teresa MINDEGIA ARIZTEGI	OITZ
Francisco URRUTIA GRAJIRENA	SALDIAS
Josefa SARRATEA	URDAZUBI
Paula Victoria VERDU SUHAS	URDAZUBI

URDAZUBI

**Azkar
taldeko
Santiago
Villares
alkate**

Aitor eta Fani

Udal hauteskunde estuak izan dira aurtengoak, 14 botok bereizi baitute Azkar taldea (140) Urtxume elkartetik (126). Urtxumeko buru Andres Diharassarryk 8 urtez alkatetzaren ondotik, Santiago Villaresi pasatu beharko dio errelebeoa datozen egunetan. Zinegotzi berriak ere izanen ditugu herrian: Azkar taldeko Juan Ignacio Arzoz, Juan Jose Suhas eta Itziar Galarregi, eta Urtxumeko A. Diharassarry, Daniel Elizalde eta Miguel Ariztia. Erran, nehoiz baino herritar gehiagok bozkatu duela hauteskundeotan (%82,4).

**HARRISO
LYKEO
CORTEGIR**
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542319
Maison et Vannerie
CASA

BURKAITZEA
- ostatu
- erretegia
Zugaramundiko bidea, 3 km
945 509 280 · URDAZUBI

Lizuniaga
HOSTAL - RESTAURANTE



Oilasko erreak eramateko.
Enkarguak hartzen dira.
Logelak bainugela
eta telebistarekin

Lizuniagako gaina • 31780 BERA
Tel : 948 63 10 31

ANTZUZELA S.L.

Tel: 948 631 317

HARRI NATURALA

Alcortzen eta Lantzen

Antzuzela Aguilola Oros amezola Urdola Jorola Alkorta Olatola	Tuzola Aguilola Aguilola Aguilola Aguilola Aguilola
---	--

Alcortzen eta Lantzen

**JUNYARRIAS
ADONIZAR
ZOLA**

Irungo enpresak

SARA

Ikastolaren 30. urteurrena ospatuko da larunbat honetan

Goiz-goizetik hasita omenaldia, dantzak, musika, puzgarriak eta hainbat ikusgarri

ttipi-ttapa

Olhain ikastolaren tzat urte berezia da aur-tengoa, 30 urte beteko baititu. Horren harira, ekitaldiak prestatu di-tuzte datozen eguneta-rako. Hasteko, ortziral honetan, ekainak 15, hi-tzaldia izanen da Lur Be-rrin, 21:00etatik aitzine-ra. Claude Hägege Pa-riseko *Collège de Fran-cko* linguista eta iker-tzailak hizkuntza gutti-tuen egoerari buruzko mintzaldia eskainiko du. Horrela, hizkuntza ga-ratzen, hiltzen eta ber-pizten den heinean, jen-dartea eta hizkuntzen arteko harremanez ari-ko da.

Baina egun haundia larunbata izanen da. 11:00etan ongi etorria eginen da, eta ondotik omenaldiak. 12:00ak bi-tarte ikastolako haurrek ikusgarria ere eskaini-ko dute herriko plazan. Eguerdie partean, 13:00etan aperififa iza-nen da, eta kantu eta dantzak Patxi Perez eta dantza Pikorekin. 14:00etan zikiro jatea eginen da, eta bazkaria alaitzeko ez da musika, dantza eta bertsolaririk faltako. Helduek 25 eu-ro ordaindu beharko di-tuzte, eta haurrek 7 eu-ro. Halere, azken hauen-tzat, 13:00etan izanen da bazkaria.



ARGAZKIA: HENRI ERRANDONEA

Ttikienek joku puzgarriekin ongi pasatzeko aukera izanen dute 14:00etatik 17:00ak bitarte.

Bazkalondoan, be-rriz, joku puzgarriak iza-nen dituzte ttikienek 14:00etatik 19:00ak ar-te. 17:00etatik aitzinera *Karidadeko benta* en-tzuteko aukera izanen da, eta Patxi Perez eta dantza Piko ere han iza-nen dira.

Herriko trikitilariak, gaiteroak, txistulariak eta kantariak, bertsola-riak... Besta giroa egun osoan nabarituko da he-rrian, eta ikastolatik, haur, guraso, irakasle

eta laguntzaile guztien-tzako gomita luzatu du-te. Gisa berean, eske-rrak ere eman nahi izan dizkiete. Bertzalde, ai-patzekoa da, ikastola-ren 30 urtetako ibilbidea ilustratzeko erakusketa bat ere prestatu dutela.

Sara, Azkaine eta Senpere hondamendi eremu izendatu dituzte

Maiatzaren 4ko eu-rite eta ekaitzek eragin-

dako kalteak direla-eta, hondamendi eremu izendatu dituzte Lapur-diko hainbat herri. Ho-rien artean daude, Az-kaine, Senpere eta Sa-ra. Baita Jutsi, Amen-düze, Basusarri, Uzta-ritze, Baiona, Kanbo eta Ezpeleta ere. Michele Alliot-Marie Frantziako Barne ministroak onar-tu zuen izendapena orain bizpahiru aste, eta horren bidez, laguntza bereziak hartuko dituz-te aipatutako herriek.

SOULE

hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

ttipi ttapa

☎ (0034) 948 635458

ZOANSA

MARKA GUZIZEN KONPONKETA
Banarta. 2 - Alkalaga Industrialdia
LESABA (sarrera Benatik)
Tel. 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berriz egiteko sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESABA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

SENPERE

20 000 euro baino gehiago bildu dituzte Herriko Etxean uholdeetako kaltetuen alde

Ibarrunen Aroztegia zubiaren maila goratuko dute urtegia bilaka ez dadin urak ateratzen direlarik

Franck DOLOSOR

Maiatzaren 4ko uholdeen ondotik elkartasun zabala sortu da herrian. Herriko Etxean ezarri duten kutxan 20.000 euro baino gehiago bildu dituzte jadanik. Azken herriko kontseiluan, andere auzapezak jakinarazi zuenez, orotaratz 300 etxetan sartu zen ura, 400 abere ito ziren eta mila ibilgailu bota behar izan ziren. 30 enpresatan ere kalteak izan ziren. Saltegi batzuk atekak berriz ireki dituzte, baina jantzien garbitokiak, adibidez, hetsia segitzen du. Bideetan ere lan haundia da dena arri-

matzeko. Ibarrunen Aroztegiko zubia goratuko dute urak ateratzen direlarik ura atxiki berterik ez duelakotz egiten. Paueko Kontseilu Nagusiak lanen %80 pagatuko ditu. Bertze 400.000 euro ere emanen dituzte, bideak, aintziraren inguruak, zubiak eta abar arrimatzeko. Herri Urratsek ere kalteei aitzin egiteko 10.000 euro bildu dituela jakinarazi du.

200 lagun maiatzaren 26ko bazkarian

200 lagun pasa bildu ziren maiatzaren

26an aintzirako besta komiteak prestatu zuen lehen bazkarian. Denbora txarra izan bazen ere, giro paregabea izan zen pittika errearen jatean. Jean-Michel Berreau herriko musikariaren taldeak bazterrak untsa alaitu zituen, eta jadanik denek hitzordua finkatu dute heldu den urterako. Lehenago, herriko eta Amotzeko bestak izanen dira udan.

Herriko Etxeak, bere aldetik, Amaren Eguna domina banaketarekin ospatu du aurten ere. Aurtegoan, Lopez anderea zoriondu dute.



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE (KARINE ORELLANA)
Jaunartzeak izan dira berriki, eta oraingoan, argazkian ageri direnen eguna izan zen.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



**Luis Mari
MAIA ARIZTEGI**

VI. URTEURRENA

Sobera abudo
joan bazinen ere,
beti gogoan eta bihotzean
izanen zaitugu

EMAZTEAK ETA SEME-ALABAK

Etxalarren, 2007ko ekainaren 10ean



EZKONTZAK

Imanol Gonzalez Ruiz eta **Noemi Gastesi Ballejo**, Artikutzan, maiatzaren 19an.
Jose M^a Bidart Goñi eta **Virginia Zabaleta Atxutegi**, Elizondo eta Leitzakoa, maiatzaren 5ean.

Juan Pablo Calvo Ruiperez eta **Rebeca M^a Aranzadi Ubierna**, Exalarren, apirilaren 5ean.

Fermin Otxoteko Telletxea eta **Mirian Bengoetxea Aranburu**, Lesaka eta Etxalarkoa, maiatzaren 19an.

Erick Vinizio Muñoz eta **Miren Uzuri Guridi Ormazabal**, Costa Rica eta Oñatikoa, maiatzaren 21ean Zubietan.

Luis Miguel Arraztoa Mendikoa eta **Sara Rosario de la Cruz Padilla**, Irurita eta Ekuadorrekoa, maiatzaren 19an, Iruritan.
Joaquin Aioroa Ariztegi eta **Maidar Goñi Etxeberria**, Ituren eta Oizkoa, maiatzaren 26an Oitzen.

Mikel Hernandezena Goienetxe eta **Kristel Iturria Mujika**, Zugarramurdi eta Ainhoekoa, ekainaren 2an Zugarramurdin.



SORTZEAK

Ane Goienetxe Jaurena, Zugarramurdi-koa, maiatzaren 17an.

Unai Sanz Criado, Berakoa, maiatzaren 17an.

Ion Urkiola Rebollo, Berakoa, maiatzaren 31n.

Lorea Agesta Telletxea, Doneztebekoa, maiatzaren 18an.

Cristina Mesple Hidalgo, Lesakakoa, maiatzaren 29an.

Unax Larraburu Hernandezena, Sunbilla-koa, maiatzaren 28an.

Iraitz Mendiburu Telletxea, Elizondokoa, maiatzaren 26an.



HERIOTZAK

Eulogio Almandoz Larrain, Arantzakoa, maiatzaren 31n, 90 urte.

Joaquin Madariaga Matxikote, Arantzakoa, ekainaren 2an, 70 urte.

Jesus Ibarra Bertiz, Sunbilla-koa, ekainaren 1ean, 89 urte.

Jose M^a Bidegarai Dendarieta, Irurita-koa, maiatzaren 22an, 85 urte.

Jacinto Martikorena Arribillaga, Berakoa, maiatzaren 23an, 73 urte.

Roman Mihura Ezkurra, Lekarozkoa, maiatzaren 28an, 83 urte.

Joaquin Zubieta Arratxea, Zigakoa, maiatzaren 29an, 89 urte.

Pedro Zubiria Apeztegia, Lesakakoa, maiatzaren 28an, 72 urte.

Jose Iribarren Iribarren, Doneztebekoa, ekainaren 2an, 70 urte.

Kirito Gortari Ugarte, Zigakoa, ekainaren 2an, 85 urte.

Basilio Goñi Desgrans, Lekarozkoa, ekainaren 4an, 82 urte.



**Eulogio
ALMANDOZ LARRAIN**
Arantzan, 2007ko maiatzaren 31n, 90 urte



Hatsa doakabe
hautsiko da arazi,
galdegehi labe
nolatan nolana
biziko naiz zū gabe

Belai bizkarrin makila eskuan, zapela buruan,
ta solasa ahoan, gordeko zattugu gure bihotzean

ZURE BILOBAK.



**Jesus
IBARRA BERTIZ**
Sunbilla, 2007ko ekainaren 1ean

Zure bihotzeko argi dizdiratsu hori,
sekulan ez dadila itzali.
Amodio eta borondatezko bide horixe,
denak segi dezagun.
Eskerrik asko Jesus.
Beti zurekin.

ZURE FAMILIA.



**Roman
MIHURA EZKURRA**
Lekarozen, 2007ko maiatzaren 28an, 83 urte

Nahiz eta gure artetik
urrutira joan,
beti izanen zaitugu
gure bihotzean

ZURE FAMILIA.

PILOTA

Abian da 'IV. El Pais del Bidasoa' izeneko zesta punta txapelketa

Finala uztailaren 1ean jokatu da Doneztebeko frontoian

G. PIKABEA

Ekainaren lehenbiziko asteburuan abiatu zen Legasan *El pais del Bidasoa* izeneko enpresen arteko zesta punta txapelketa. Jai Alai zesta punta enpresak eta Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatu dute eta aurten goa laugarren edizioa da. Kanporaketak asteburuetan jokatzen dira, eta eskualdeko frontoiak aukeratu dituzte horretarako. Lehenbizikoa Legasan izan zen, joan den asteburukoa Elizondón eta Oronoz-Mugairin, larunbat honetan Beran. Final nagusia uztailaren 1ean jokatu da Donezteben.

Txapelketa bi mailatan ari da jokatzen. Alde batetik, enpresa profesionaleko zortzi pi-



ARGAZKIA: AITZIBER LARRABURU

Txapelketa maiatzaren 31n aurkeztu zuten Bertizko Jauregian.


lotariaren artekoa, eta bertzetik, seniro mailako torneoak, bikoteka. Profesionaletan, Euskal Jai Alai enpresatik Erkiaga, Urrejola eta Txelis I.a ari dira. Donostiako Alive enpresako Konpa I.a, Foronda eta Mendibour, eta BAC Biarritz enpre-

sako Onaindia. Zortzi garren pilotaria gonbidatu gisa ari da, Kalzartak II.a, iazko azpi-txapelduna.

Seniorretan ondoko zortzi bikote hauek ari dira: Arkaitz Remiro eta Gorka Lakontxa, Ander Landa eta Urtasun, Za-

rate eta Arteta, Borja Gartzia eta Jesus M^a Virseda, Oskar eta Alain Ros, "Mantas" Alonso eta Iñigo Aldekoa Otarola, Alejandro Blazkez eta Pedro Lazkano, eta azken bikotea, Fernando Becerril eta Ibai Iturrino.

MENDIA



PERTSONAIA

Fernando ETXEGARAI

Hirugarren Munduko Kopako lehen proban

Abian da mendiko lasterketaren Munduko Kopa. Duela aste batzuk lehen saioa jokatu zen Kataluniako Prinioetan, Bergan eta Fernando Etxegarai ez zuen hutsik egin: hirugarren gelditu zen. Munduko Kopa hagitx gogorra izaten da, eta luzea gainera. Baina beratarrek sasoian dagoela erakutsi du berri ere. Bergako Maratoiaren kasuan, adibidez, 42,195 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten, eta 6.000 metroko desnibela zuena. Zenbaitetan eskuak ere erabili behar izan omen zituzten lasterkariek. 300 lagunek parte hartu zuten lehendabiziko kanporaketan, horien artean euskal selekzioako kideak. Mutiletan lehen hamar postuetan sailkatu ziren euskal selekzioako hiru kideak. Etxegarai 4 ordu 25 minuto eta 40 segundotan egin zuen ibilbidea, irabazlearengandik 7 minutu eta 7 segundora. Bigarren kanporaketa Italian jokatu da, uztailaren 1ean.

AIZKORA

Doneztebeko XXIX. Herri Lasterketa ekainaren 24an egingen da

Izen ematea egun berean edo www.herrikrossa.com-en egin behar da

G. P.

Doneztebeko Erreka Kirol Elkarteak Herri Krosaren 29. edizioa antolatu du. Ekainaren 24an izanen da. Izen ematea egun horretan bertan egingen da, edo bertzeala, www.herrikrossa.com

web orrian. Parte hartzeko 3 euro ordaindu beharko dituzte jubenilek eta hortik aitzinera-koek. Gazteenek, ordea, dohainik izanen dute.

Aurrebenjamin eta benjamin mailakoek 200 metroko ibilbidea egin

beharko dute, alebinek 500 metrokoa, infantilek kilometro batekoa, jubenilek eta senior mailako emakumezkoek 8 kilometrokoa eta gizonezko seniorrek eta beteranoek 8 kilometrokoa. Gizonezkoetan ira-

bazleak 120 euroko saria izanen du, eta bigarrenak eta hirugarrenak 90 eta 60 eurokoa. Emakumezkoetan 60 euro jasoko ditu irabazleak, eta 45 eta 30 bigarren eta hirugarren helmugaratzen direnek.

AIZKORA

Rekondok jantzi du 23 urtez azpikoetan, Urrezko txapela

Minutu bat eta 40 segundoko aldea atera zion Mugertza II.ari

G. P.

Faborittoa zenak ez zuen hutsik egin: Jon Rekondo leitzarrak irabazi du Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketa, 23 urtez azpikoetan. Ekainaren 3an jokatu zen Azeitiko kiroldegian eta leitzarrak saioko proba guztietan garaitu zuen Mugertza II.a mutrikuarra.

Lehenbiziko saioa, 45 ontzakoa ahalik eta kolpe guttienetan botatzea zen, eta Rekondok 37tan egin zuen. Mugertzak bi kolpe gehiago behar izan zituen, 39. Erlojuz kontrakoan, Rekondok 51 segundotan egin zuena, gipuzkoarrak 55tan egin zuen.

Hirugarren proban, zutik moztu behar izan



ARTXIBOA

Maila nagusian ezin izan bazuen ere, 23 urtez azpikoetan ez zuen hutsik egin Jon Rekondok.

zuten 45 ontzakoa, eta hemen 23 segundoko aldea atera zion Rekondok. Eta azken proban, etzanda, 11 minutu eta 37 segundotan bukatu zituen lanak lei-

tzarrak, 12 minutu eta 39 segundotan gipuzkoarrak. Hala, leitzarrak 14 mintu eta 2 segundoko behar izan zituen guztira, 15 minutu eta 38 segundo, Mugertzak.

ARETO FUTBOLA

Elizondoko Aise taldeak irabazi du Baztan-Bidasoako XIV. txapelketa

G.P.

Maiatzaren 26an jokatu zen Baztan-Bidasoako 14. futbito txapelketa, eta aurtengo lehen-dabiziko bi postuak Baztanera joan ziren. Txapelketan aritu diren 16 talderen artean Elizondoko Aise taldea eta Arraioz taldea ailegatu ziren finalera, eta Aisekoak gailendu ziren 6 eta 5. Hasierako ligan zazpi jardunaldi jokatu behar izan zituen talde bakoitzak, eta Arraiozek horietatik sei irabazi zituen. Bakarra galdu zuen, Berako Lur Lan Eskabazioak Baietzen aurka. Final laurdenetan Patxaran Ordoki izan zuen aurkari, eta finalerdietan Lur Lan Eskabazioak. Aise taldeak, berriz, hasierako zazpi partidu horietatik bortz irabazi zituen. Doneztebeko Bar Titi taldearen kontra, eta Amaiurko Patxaran Ordokiren kontra galdu zuen. Final laurdenetan Kortarixar garaitu zuen, eta finalerdietan Titi Ostaturua. Taldekako sailkapenaz gain, banakako sariak ere banatu ziren. Golegile onena Kortarixar Sagardotegiko Asier Maritorea izan zen. 20 gol sartu zituen txapelketa osoan. Gibeletik, Arraiozko Daniel Etxeberria eta Goizalde Ostaturuko Iban San Jose izan ziren, 12 golekin. Atezainik onenaren saria Lur Lan taldeko Xabier Fagoagarentzat izan zen. Txapelketa osoan, 7 gol baino ez zituen jaso. Bigarren eta hirugarren postuak, Legasako Xanpaleko Fernando Maciciorrentzat eta Arraiozko Jon Francesena Zubillagarentzat izan ziren.

ESKUBALOA

Atezaina eta lehen lerroko eta eskuin hegaleko jokalariek fitxatu ditu BKTk

Bi errumaniar eta hungariar bat dira jokalaria berriak

G. P.

Baztango Kirol Taldea hasia da heldu den denboraldirako prestatzen. Hiru lagun fitxatu ditu berriki: Amalia Cortina errumaniarra atezain posturako, Anna Maria Felix hungariarra lehen lerroan jokatzeke eta Mirela Chirila erru-

maniarra eskuin hegalean aritzeko. Helburua, Ohorezko Mailara igotzea izan da.

Amaliak 24 urte ditu, eta 2003an Errumaniako taldearekin Munduko Txapelketan parte hartu zuen, juniorretan. 2004/05ean Bucuresteko Rapid CFR taldean

aritu zen, eta 2005/2006ean US Mios Handball taldean, Frantziako Ohorezko Mailan. Bere azken taldea, Quintercom Perdoma izan da, Espainiako Ohorezko Mailan.

Anna Maria Felixek, Hungariatik ateratakoan, Alemaniako Bun-



ARTXIBOA

Magna BKT nesken eskubaloia taldea hasia da datorren denboraldirako fitxaketa berriak egiten.

desligan jokatu zuen 2003/2004an. Hurrengo bietan, berriz, Lehen Mailako Salud Tenerife taldean aritu zen. 2006/07n Ohorezko Mailako Marina Park taldean aritu da, eta 125

golekin goleatzaile onena izan da.

Mirela Chirila da azken fitxaketa, 24 urteko errumaniarra. Errumaniako Ohorezko Mailan, Cetate Devan aritu ondok dator BKTra.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Ekainaren 4tik uztailaren 7ra, "Baztandarren Biltzarra kartel lehiaketa" erakusketa Arizkunenean, 18:00etatik 21:00etara.

Maiatzaren 30etik ekainaren 16ra, Begoña Durrutyren margo erakusketa, Arizkunenean. 18:00etatik 21:00etara.

BERA

Ekainaren 30ean, "Mugaldekoak". Poesia eta musika azken emanaldi berezia Kultur Etxean, 20:30ean.

IKASTAROA

BERA

Ekainaren 15etik 17ra, "Sukaldaritza eta clown" eta "Clown-antzerkia" ikastaroak Alkeeberea landetxean. Izen ematea 948 631162 telefonon, Esther Carrizo 61, 31780 Bera helbidean edo mugabec clown@terra.es-en. **Ekainaren 12, 14 eta 21ean**, Adinduen zaintza ikastaroa, Kultur Etxean, 10:00etatik 14:00etara.

OSPAKIZUNAK

SARA

Ekainaren 16an, Olhain ikastolaren 30.urteurrena ospatzeko besta (25.or.).

DONAMARIA

Ekainaren 15 eta 16an, asteburu kulturala (14.or.).

HITZALDIA

LESAKA

Ekainaren 22an, Fotokazetaritzaren historiari buruzko hitzaldia, udaletxeako Pleno Aretoan.

SARA

Ekainaren 15ean, hizkuntza guttutuei buruzko mintzaldia, Claude Hägege linguista eta ikertzailearekin, 21:00etan Lur Berrin.

ttipi-ttapa • agenda praktikoa

TELEBISTAKO TXOKOA



HERRIZ HERRI, BESTAZ BESTA

Besta giroan murgilduko da Ttipi-Ttapa telebista

Dagoeneko nabaria da herriko besten usaina eskualdean. Eta bide horretan murgilduko da hemendik guttira **Ttipi-Ttapa Telebista** ere. Doneztebeko San Pedro bestekin abiatuko da udako bestaz besta saioa. Bestetako irudi freskagarri, elkarrizketa saltseroenak eta bertzelako ekitaldiak ikusteko modua izanen da. Bestek ematen dutenaren berri emanen da arratseko saioetan, eta egunean ikusteko aukerarik ez dutenentzat, biharamuneko errepikapenetan. Bestetako bideoa edo DVDa eskatzeko aukera ere izanen da, 948 635458 telefonon Doneztebekoekin hazi eta Etxalar eta Arantzako Ama-


birjinak arte, gure eskualdeko besta gehientsuenen lekuko izanen dira **Ttipi-Ttapa**ko kamarak.

"**BAZTAN SOLASEAN**",

ORTZIRALEKO ERREPORTAJEAN

Bertzalde, ortziral honetako erreportajea, "Baztan Solasean" liburu berria mintzagai. Mariano Ize-ta bekaren laguntzaz, Maite La-kar eta Ana Telletxeak "Baztan Solasean" liburua argitaratu dute, baztandarren bizitza, ohiturak, erri-toak eta egunerokotasunaren historia bilduz. Telebistako lankide-ak egileekin egon dira, eta argi-talpenaren inguruko hainbat xe-hetasunen berri emanen digute.

DISKAK



On Benito

ON BENITO

2007

«Benita ez zen gizon bakarreko emakumea. horregatik, bere seme-ek lotura bat izan zeza-ten, denei, Benito izena jarri zien. Benitak musi-ka aunitz maite zuen, eta semeekin ordu lu-zeak ematen zituen irra-tiaren ondoan. Istorio kontalari ederra ere ba-zen, eta 30.hamarka-dako bluemen zaharren historiak kontatzen ziz-kien semeei, musikaren hazia ereinez. Musika-zale amorratuak bilaka-tu ziren hauek, 50.ha-markadako rock'n rolla maite zuten batez ere. Amaren irakaspenei es-ker, han hemenka da-biltza musika jo eta joz gauregun. Hona hemen On Benito beraien le-henengo lan gozaga-rria». Joseba Iratzoki, Mikel Lertxundi eta Raul Gartzia hiru beratar hauek apirilaren grabatu eta orain argitaratu du-ten lana da On Benito, borts kantuz osatutako disko berria.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Maiatzaren 25etik ekainaren 1era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 26,50 € (-1,50)

Zerri gizena
1,115 € kilo. (0,045)

Zerramak:
0,360 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,74 (-0,03)

1.koa 3,43 (-0,03)

2.koa 3,23 (-0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,95 (=)

1.koa 3,64 (=)

2.koa 3,41 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg.kanalean pisatzen du-ten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 190,00 (=)

idixkoak 242,00 (-17,00)

Aretze nabarrak:

urruak 150,00 (=)

idixkoak 175,00 (-2,75)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,95/3,08

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,80/6,40

8-10 kilokoak: 4,80/5,50

JAKIN BEHARREKOAK

Semea edo alaba prest dago pixoihalak kentzeko

Beranduegi kenduz gero «*patxadazalea*» bihurtu daiteke umea

Adituek diotenez, pixoihalak kentzeko unerik egokiena haurrak 18 eta 36 hilabete dituenen da. Denbora baino lehen kentzen saiatzea kaltegarria ere izan daiteke, umea bere gorputza kontrolatzeko gai ez bada. Baina gehiegi berandutuz gero, haurra «*patxadazalea*» bihurtuko da eta aunitz kostatuko zaio ordura arte egin duen zerbait ezin dela egin ulertzea. Egite batzuk umea pixoihalik gabe egoteko gai den ala ez erakusten dute:

Pixoihala kendu eta hiru orduren buruan lehorra segitzen badu, edo pixoihala bustita edukitzeak urdurijartzen badu ikasten ari den seinale da. Baita pixagura duela adieraztean ere, edo sei hilabete baino gehiago badaramatza



Pixontzia erosi eta zertarako den azaltzea trikimailu ona da haurrak pixa egiten ikasteko.

oinez. Haurrak berak pixoihalik ez paratzeko eskatzea ere kontuan hartzekoa da.

Ez da komeni kendu eta berriro paratzen ibiltzea. Horrela, haurrak egoera batzuetan pixa egin dezakeela ulertuko baitu. Esfinterra egunez kontrolatzea erreza goa da, eta gauez kontrolatzen ikastea

beranduagorako uztea gomendatzen da, lo daudenean zail egiten baitzaie. Umearekin pixontzi bat erosi eta bera egon ohi den gelan uztea ere trikimailu ona da. Zertarako den azaldu, eta egun batean pixoihala kendu eta pixontzian jarri, pixa edo kaka egin nahi duen galdetuz. Kasualitatez

egiten badu, zoriondu eta poza adierazi; Aitzitik, borts minutoren burua deus egin ez badu, ez eman garrazirik. Gutti gorabehera ordu eta erdiro eraman pixontziaren ondora. Pixa edo kaka egiten badu ez egin errietarik, ziurgabetasuna eragin baitiezaioke, eta beranduago ikasiko baitu zer egin behar duen. Haurra egoera kontrolatzen hasten denean, pixontzia jarri jan ondotik edo etxetik atera aitzinetik. Umeak 15 egun badaramatza gainean pixik egin gabe, gauez ere pixoihalik gabe egon daiteke. Hasteko, siesta egiteko bakarrik kendu, eta ongi eginez gero, gauez ere bai. Bertzela, berriz, egun batzuen buruan saiatu.

Rakel AMIGO

LIBURUAK



Salbazioko armada

Taia ABDELA

ALBERDANIA, 2007

Jaio zen etxeak, Marokon, hiruro logela zituen: bat aitarentzat, bertzea anaia nagusiarentzat, eta hirugarrenean, amarekin eta bere zazpi anai-arreba gazteagoekin lo egiten zuen Abdelak. Hurrek dena dakite gurasoen amodio oldarrei buruz. Lotsaz, ordea, ez dute horretaz hitz egiten. Abdela nerabe denean anaia nagusiak Tangerrera darama txangoan. Anaia nagusiaren ganako pasioa zapuztuta geratuko da hura neska batez

maitemintzen denean. 20 besteak ditu eta Genevara doa bere ikasketak jarraitzera. Bere ametsetako Europa eza gutuko du azkenean, bere ametsetako liburuak, zinema, askatasuna! Bakardadea aurkitzen du, ordea, etxekoengandik urrun. Abdela Taiak gure garaiko gazte baten ibilbidea kontatzen digu. Maroko tradizioaren eta Mendebaldeko kulturaren arteko oreka-puntu egokia bilatzea da ibilbide horren gakoa.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Ekainaren 23an, Ekaitza-Arantza mendi ateraldia, Ulibeltzak mendi taldearekin.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Ekainaren 16an, 80-90 besta Dj Ritxirekin+Lur DJotak, Lur dantzalekuan. (Denboraldi bukaera).

BERA

Ekainaren 14an, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. 25.urteurrena ospatzeko ekitaldia, Kultur Etxean, 20:00etan. Sarrera doan.
Ekainaren 17an, Dean Roberts (Zelanda Berria) Kultur Etxean, 19:30ean.

LESACA

Ekainaren 22an, Mielotxin Taldea Onin errekarren gainean, 22:00etan.

SARA

Ekainaren 16an, Karidadeko Benta, 17:00etatik aitzinera, ikastolaren urteurrenaren harira.

ANTZERKIA

LESACA

Ekainaren 15ean, "Kanterbileko mamuaren azken gaua". Oscar Wilden lanean oinarritua eta Patxi Saenzek moldatua, Iran eskolako ginasioa, 21:00etan.

BESTAK

ARIZKUN

Ekainaren 23tik 25era, xehetasunak erdiko gehigarrian.

SALDIAS

Ekainaren 23tik 25ra, xehetasunak aldizkarian.

00-34 948 63 54 58

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.

- 2. eskuko pisuak salgai.
- VPO pisuak salgai.

ERRATZU.

- Apartamentua salgai.

ARRAIOZ.

- Pisuak salgai.

BERA.

- 2. eskuko pisuak salgai.
- Etxea salgai.

LESAKA.

- 2. eskuko pisuak salgai.

ETXALAR.

- Baserria salgai.
- DONEZTEBE.**
- Apartamentua trastero eta aparkalekuarekin salgai.
- AUKERA ONA!!**

- Promozio berriko pisuak salgai.
- Inguruan etxeak, baserriak eta bordak salgai.

BAZTAN-BIDASOA.

- Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta terrenoak salgai.

PROMOZIO BERRIAK:

- IGANTZI.** Azken pisua eta duplexa salgai.

INFORMA ZAITEZ!

948 451 841 / 948580705

www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

ETXALAR. Baserria bere lur-rekin salgai. ☎948 635122 (20:00etatik 22:00etara).

LESAKA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lur eremuarekin eta lizentziekin salgai. Lur eremu urbanizatua ura, argia, ur zikinaren putzua... ☎678 526091.



DONEZTEBE. Eraikitzen ari den pisua salgai. ☎ 617 461649.

ELIZONDO. 125 m²ko pisua salgai edo lur eremua-

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatutak bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ren truke. ☎ 617 461649.

ARANTZA. 97 m²ko pisua eta 45 m²ko bajera salgai. Sukaldea, iringela, egongela, 3 logela, ikasgela, 2 komun, berogailua, lurreko sua eta ganbaran trastelekua. Etxea hegoaldera begira. Bista ikusgarriak. Bajera ura, argia eta 3 leiho. ☎ 661 021356/ 662 293766.

ELIZONDO. 90 m²ko pisua salgai, eta garajea aukeran. ☎670 551220.

ELIZONDO. Apartamentu mobleztatua errentan emateko. Badu trasteroa. ☎ 650 373215 (15:00etik 19:30ra).

Luz St SAUVEUR (Pirinio Frantsesa). Udan alokatzen da (asteak eta hamabostaldiak). Mendia: Gavarnie, Tallon, Pic-Ardiden, Nouvelle. Txirindula: Tourmalet, Luz-Ardiden, Hautacam, Soulor-Aubisque. ☎620 802007/ 943 468478.



Baztango

promoción inmobiliaria

SALMUNTA:

BERA: 121 m²ko pisu berria, igogailuarekin.
BERA: 89 m²ko pisu berria, igogailuarekin.
BERA: Bizitzan jartzeko prest dagoen 97 m²ko pisua, 3 logela eta garajea. Leku lasaia.
BERA: Teiatupean, 90 m²ko pisua, egongela handia bistekin.
BERA: Etxebizitza egiteko 78m²ko lokala, hagitx argitsua.
BERA: Bizitzan jartzeko prest dagoen 127 m²ko pisua eta estudioa.
DONEZTEBE: Erdigunean: 72 m²ko pisua eta bajera.
AZPIKULTA: Leku-errea.
ERRATZU: Guztiz zaharberritutako etxea eta lur eremua.

LOKALAK SALTZEKO ETA ERRENTAN EMATEKO

PISUAK ETA BASERRIAK:
ARANTZA, DONEZTEBE, ELIZONDO eta ERRATZU.

LUR EREMUAK:
BERA, ETXALAR, SUNBILLA, ELIZONDO, ERRATZU neurri desberdinetakoak.

ALOKAIRUAK:
BERA: Pisuak, 3 logelatakoak, igogailuarekin.
ELIZONDO: Pisuak, logelatakoak.

ESKARI HANDIA IZATEAGATIK
ETXE ZAHARRAK, PISUAK, BASERRIAK
BORDAK ETA LUR EREMUAK BEHAR DITUGU.

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tel/Fax 948 630552
info@baztango.com
www.baztango.com

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BAZTAN. Etxea edo baserria errentan hartu nahi da. Etxea zaindu eta konponketak egiteko prest, alokairu merkearen truke. ☎619 605939.

BORTZIRIAK. Pisuak errentan hartu nahi da Bortzirietan, eta ahal bada, Beran. ☎666 112349.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LESAKA. 20 m²ko garajea salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LESAKA. Trasteroa eta garajea errentan emateko, Iturbena kafetegiaren azpian. ☎948 637366.

LEITZA. Gaztañaga taberna traspasatzen da, MINP proiektuarekin eta erraztasunekin. ☎ 699 361194.

ZERBITZUAK

205 Zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase gututako zurgin lanak
- Eskatu aurrerantutako konpromisoak gabe

Jose Miguel Errotxabarrena
Tel. 948 434 848 - 447 818 944
Garrantzia - ARANTZA

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

BORDA
PLADUR LANAK

ZUZLANDAPLAN ZERBITZUAK
BARRERITZAK - GABAZ MUGILAK

Tel. 948 477 277 - LESAKA
borlaplatur@telefonos.net

LANA

301 Eskariak

Inguruan adineko jendea zaintzeko emakumea eskaintzen da. ☎948 592087/ 610 337681.


DONEZTEBE. Emakumea eskaintzen da etxeko lanak edota zaharrak edo haurrak zaintzeko. ☎948 451423.

BERA. Udan klase partikularrik emanen. Ingelesa, frantsesa eta Lehen Hezkuntza. ☎620931994.



VENTANAS ARAMBURU
Ongizate termiko eta akustikoa
Aluminioa egur koloretan

Gabiria, 42 IRUN
Tel.: 943 62 22 57 • Fax.: 943 62 38 11



musika:
ekoiztetarako
abaitarako
despedidak
bestak

Intigo: 653 709 976

BERA. 18 urteko neska eskaintzen da haurrak zaintzeko. Ekaina eta uztaila. **648 231337.**

ETXALAR. Udan Etxalarren haurrak zainduko nituzke. Haur Hezkuntza ikasten ari naiz eta haurtzaindegian praktikak egin ditut. Goiz nahiz arratsaldean lan egingen nuke; orduetaz solastuko. **619 236611 / 948 635229.** Udan **klase partikularrak** emanen nituzke. **686 202197 (Alaitz).**

LANA 302 Eskaintzak

LEITZA. Enpresa batek man-

tenimentu lanerako teknika-ribat behardu. **619829289**

BERA. Udal igerilekuko ostatua alokatzeko jendea behar da. **948 630215.**

ERRATZU. Baztan Kanpinean sukaldari laguntzailea behar da, uztailaren 1etik irailaren 10 arte. **948 453133.** Udan **2 haur zaindu eta etxeko lanak** egiteko neska behar da. **666 761808.**

LESKA. Atxaspi ostatuan asteburuetan aritzeko zerbitzaria behar da, euskaraz dakiena. **948 637536.**

BERA. Adineko bikotea zaintzeko kotxea duen emakume euskalduna behar da.

TALLERES SANTESTEBAN 948 450282 • DONEZTEBE

KOTXE IA BERRIETAN ESKAINTZA ZABALA (6-12 hilabetekoak)
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.
BIGARREN ESKUKOAK
Renault 29 Chamade, Opel Astra 2.0, Kangoo 1.9 D 2001koa (gibeleko aldean itxia), Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen ZX 1.9 TD, Opel Vectra 2.0 DTI 100 CV

Aste tartean goizez eta arratsaldean 2 orduz lan egiteko. **617 185990.**

BERA. Lenkonea jatetxean esperientzia duen sukaldaria behar da. **948 625542**

BERA. Katakun pertsona bat behar da igandetan lan egiteko. **659 097216.**

Neska behar da udan edo urte osoan lan egiteko. **948 630734.**



GANIX TAILERRA
Ilargailuen mekanika eta elektrizitatea
BERA FIAT zerbitzua
Iruñea, 9 • Tel. 948 630 649

BERA. Lan egiteko 2 pertsona behar dira. **629 083567.**

MOTORRA 501 Salerosketak

Trialeko gas-gas 280 motorra salgai, 2002koa. Egoera onean. **637460017.**

Jeep Cherokee Laredo salgai, 2000koa, 100.000 km. Egoera ona. **616 243530.**

Renault 19, 1.9D salgai, egoera onean eta merke. 257.000 km. **0033 559 294407.**

Honda CR 2,5 motorra salgai, krosekua, 97koa. Egoera onean. **679 555036.**

Gas-gas EC 200 enduro salgai. 2006koa, egoera ona. **677 118403.**

Citroen C5 HDI 110 salgai, extra guztiak. 2005eko uztailera. 7.000 km. Prezioa adostuko da. **679 087082.**

Seat Leon FR 150 CV autotua salgai, ongi zaindua, kolore beltza eta kilometro guttiarekin. **659 471544.**

MOTORRA 502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Zafira, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoak, Galloper Super Exceed 3 ate, Montero IO 5 ate, Ibiza eta Almera.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Collie arrazako zakurra erosiko nuke. **659 302184.**

Bizakur oparitzen dira, ama eta kumea. **696 254741.**

DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

LESKA. Maiatzaren 13ko asteburuan etxeko giltzak aurkitu dira Bittirian. **620 555029.**

DENETARIK 702 Salerosketak

Hergon sukalde ekonomikoa salgai, paretan sartzeko, erabili gabea eta burdinazko atearekin. Prezioa: 500 euro. **609 708797.**

Bateria elektronikoa salgai, aulkiaarekin, 300 euro (Millenium). **636 880115.**

Lastoa (ahotza) salgai, garagarra, garia eta oloa. 3 formatuak: 6 kuerda-koak (320 kilo), 4 kuerda-koak (180 kilo) eta tikiak paletizatuak, 14 pakete lotuak. Urte guztian etxera igortzen da. **943 366040 / 607 457004 (Dani).**



TOLDOAK salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
Bidasoa, 66 behea - BERA



ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A.
Igantziko bentak
948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestak 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaiak
- Mantenu rodilloak

Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net




Elizondoko **ANE TELLETXEA** GALARREGIK ekainaren 16an 2 urte beteko ditu. Zorionak gure printzesa, Eneko eta Xabierren partetik.



XABI IPARRAGUIRRE ZUBIETA etxalartarrak ekainaren 2an 5 urte bete ditu. Zorionak ama eta atarren partetik etxeko gizontxoarentzat. Muxu aunitz tiki!



ANDE MARITORENA TAPIA beratarrrak ekainaren 19an 2 urte beteko ditu. Anitz urtez! Segi beti bezain sinpatiko!



MAIALEN RUIZ ALTZUGUREN beratarrrak 7 urte bete ditu ekainaren 4an. Zorionak familiaren partetik, bereziki Leireren partetik. Muxu bat printzesa.




ENERITZ eta **LEIRE** gure panpinak 6 eta urtea beteko dituzte ekainaren 12an eta 20an. Zorionak! Muxu pila patata tortilla. Jonetxu, atxa eta ama.



LESAKAKO AITZIBER eta **IDIA IRAZOKI** BENGOTXAK urteak beteko dituzte ekainaren 30ean eta uztailaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi haundi bat familiaren partetik.



KENAİK ekainaren 1ean 2 urte bete dituelako, zorionak!!! Muxu haundi bat Ethanen partetik.




AMAIA ZELAIETA TOMASENA etxalartarrak 11 urte beteko ditu ekainaren 14an. Zorionak eta aunitz urtez aita, ama, Asier eta familiaren partetik.



SUNBILLAKO PATXIKU BAZTERRIKAK eta Iruritako **INES OBREGOZOK** urteak beteko dituzte ekainaren 1ean eta uztailaren 13an. Zorionak Sunbillako Pixanekobordako familiaren partetik. Tarte puska bat ailegatuko da baserrira!!!




XUBAN ZELAIETA INDAKOETXAK 3 urte beteko ditu ekainaren 19an. Zorionak eta muxu haundi haundi bat atxiki-amatxi, amatxi Hilaria eta osaba Mikelen partetik.




MARTIN ETXEBERRIA eta **JON ZOZAI**A goizuetaurrek urteak bete dituzte. Zorionak zuen lagun eta irakaslearen partetik.



NEKANE ITURRIA beratarrrak 35 urte beteko ditu ekainaren 29an. Zorionak Julen, Naia eta familia guztia-aren partetik.



AIMAR LEKUONA LAZKANOK ekainaren 10ean 6 urte bete ditu. Zorionak gure muttiko politenari bere attatto eta amatoaren partetik. Patxo haundi bat.



DONEZTEBEKO NAROA HUARTE JUANOTENA gure trasto tikiak uztailaren 5ean 3 urte beteko ditu. Zorionak! Doneztebeko atautxi-amatxi eta izeba-osab.



NAROA HUARTE JUANOTENAK uztailaren 5ean 3 urte beteko ditu. Zorionak aiatxo eta amaxoren partetik. Muxu handi bat gure printxerari!!!



NAHIA LEKUONA SAN JUANEK 3 urte beteko ditu ekainaren 23an. Zorionak eta muxu handi bat atxa, ama eta familikoen partetik.



NAHIARA MARTIN GOIA lesakarrak 10 urte beteko ditu ekainaren 17an. Zorionak Berako familiaren partetik, bereziki amatxi Pili-aren partetik. Muxu handi bat



MARIBEL AGIRRE MAIAK urteak beteko ditu ekainaren 26an. Zorionak eta egun ona pasa!!!



MARIBEL AGIRRE MAIA. Orain dela 25 urte kafea gure kontura izan zen, aurtan non gonbidatuko gaituzuk? Zorionak!!!



MIKEL eta **MANEX** lehengusuek ekainaren 5ean eta 16an urteak beteko dituzte. Aunitz urtez Antsoaingo eta Berako familien partetik.





AMAIUR

vegasa

Modelo berriak:
 rustikoak • modernoak • praktikoak
 Entzimerak: silestone • granito • corian ...
 Elektrogailu nazionalak eta alemanak
Rosa Seminario 13 • Tel. 948 450 400 • DONEZTEBE



**ARMAIRU
ENPOTRATUETAN
AUKERA ZABALA**

Muebles
Telletxea
 DONEZTEBE • Rosa Seminario, 12 • Tfno: 948 450 258 • 948 451 811

Orrialde Osoa naiz, txikito! Begiratu ongi! Orrialde osoko anuntzioa naiz ni. Inprentek ikaratuta daude nirekin –orrialde zuri handia– deitzen naute. Ez dago ni bezalakorik. Gehiago saldu nahi duzula? Nik handituko dizkizut salmentak. Denda osoa ere salduko dizut. Eramanen dizkizut hamar sukalde, hamar hozkailu, berrogeita hamar argazki makina eta gero galdetuko dizut, “Ei, zer egin behar duzu begi bistatik kendu nahi dituzun hamar telebista horiekin?” Baina hori dena baino gehiago ere banaiz. Negozio berri bat zabaltzen ari zara? Nik lagunduko dizut martxa hartzen, eta etxe guztietan izanen dute zure berri. Baduzu argazki bat? Handitu hementxe bertan. Nik ez diot beldurrik. Badituzu hitzak? Ekarri hona. Handiak edo ttikiak, hementxe daudenean, inportantzia hartzen dute. Nik anuntziatu egiten baitut. Nik badut dimentsioa. Prentsako iragarkien artean inork ere zalantzan jartzen ez duen errege handia naiz ni, eta mundu osoaren begietan jarriko dut zure produktua. Entzun nire orrua. **Prentsaren Indarra**